

# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1990eko Urtarrilak 19, 48. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



J. A. ARANA MARTIJAK:

"S. ALTUBEREN LIBURUAK

ORAINDIK

EREDU DIRA"

### Eskola aurrerabidean

Elektronika laborategi berria







MODELO  
BERRI-BERRIA



MUGARRI

H  
E  
R  
R  
I  
G  
I  
N  
T  
Z  
A  
N

## CAJA LABORAL POPULAR LAN KIDE AURREZKIA



- ▶ Euskal Herri osoan ordezkaturik dagoen Kutxa bakarra gara.
- ▶ Euskal Lehen Enpresa-Taldearen bultzatzaile garen Entitatea.
- ▶ Eta gainera... hona gure gaztetasuna:

1959

1988

Lehen Bulegoa	190 Bulego
Lehen Bezeroa	725.000 Bezero
Lehen Milioia	221.000 Milioiko aurrezki

...29 urtetan soilik.

- ▶ Zatoz elkarlanean parte hartzera.

### Horrexegatik, Lan Kide Aurrezki "Euskadiko Kutxa" da



CAJA LABORAL POPULAR  
LAN KIDE AURREZKIA

Euskadiko Kutxa

## ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

### Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)  
Arrasate Pasealekua 3 Bis, etxebeha.  
20500 ARRASATE. Tfnoa: 79 71 64

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Jon Andueza  
Bego Zubia

Publizitatea: Josune Biteri

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix  
Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki  
Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de  
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele  
Zuazubiskar, Patxi Montero,  
Juan Martin Elexpuru, Mikel  
Arregi, Eukeni Olabarrieta, Arantxa  
Lizaso, Gerardo Markuleta,  
Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai,  
Juanito Leibar, Jerardo Elortza,  
Blanka Jauregi, Klarion Taldea,  
Joseba Vallés, Karmelo Uribarren,  
Iñaki Aranburu, Hankamotz,  
Maite Toledo, Atalaitakoan.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Harpidetzak: Arrasate pasealekua 3,  
bis, behea. 79 71 64

Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 6.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

ARRASATE PRESSek ez du bere gain  
hartzten aldizkarian adierazitako esanen  
eta eritzien erantzunkizunik.



## Jesus Trincado, Montevideoko arrasatearra

Martin Ugalde idazle bikainak literatur sari berri bat jaso du, bere azken elaberria dela medio. Martinek azaldu duenez, elaberrian bere bizitzako alderdi asko isladatzen da, urte luzetan zehar atzerrian emandako gertakizun, pasadizo, negar eta irripar ugari bildu dituelarik. Exilioak markaturiko bizimodua agertu nahi izan du andoaindarrak, berak hain trebe darabilen luma lanabestzat harturik.

Martin Ugaldek Euskadira itzuli nahiago izan zuen eta harrez geroztik hemengo gainerako euskaldunokin ari da jo eta ke lanean, gure herriari ahalik eta esperantzarik boro bilena eskaintzeko. Bere sorlekua nahitaez utzi behar izan zuen gizonak itzuleraren aukera hautatu zuen.

Badira beste asko, euren herritik aldentzeko behartuta izanik, bizitzaren poderioz, gogotsu hartu zituzten tokietan betiko geratzea erabaki dutenak. Azken horien artean aurkitzen da Jesus Trincado arrasatearra. Beste hainbeste bezala, 1936an egin zuen ospa, bere exilioaren ibilaldia Uruguayen amaitzeko. Hantxe bizi da Jesus eta handik bizi ditu bere barruan, hemendik eramane zituen oroitzapenak. Eta, halafede! Jesusen gogo-almazena ez da, ez, txikia.


Hamar urte dira Jesus Trincado-rekin harremanetan hasi nintzela. Posta-lotura izan da batez ere gurea, urtero pare bat eskutitz elkarri bialdu ohi diogularik. Baina, ez pentsa Jesusenak eskutitz arruntak direnik. Bai zera! Hogeitamar orrialdekoak ere jaso ditut nik Uruguayetik, hizki txiki bezain txukunez idatziak eta denetariko albistez josita. Baina, guztien gainetik, bada arlo bat Jesus-ek ardura bereziz zaintzen duena: bere haurtzaroko Arrasateri dago-kiona.

Uleru behar da, bere osotasunean, milaka kilometrotara aurkitzen denaren iraganeko itzulera. Gaztaroan deserroturiko zuhaitzak bere sustraiak baratz arrotzera aldatu behar dituenean, kokaleku berrira egokitu arren, adarrek badute gaztaro urrun hartako erreferentzi ordetzina. Horixe da, beraz, Jesus Trincadoren oraingo bizitzagunean gertatzen ari dena. Oroitzapen-jario agortezinean murgil egiten du, itzuliko ez den iraganaren lekukotasuna utzi nahi izango balu bezala.

"Gizona etorkizun da...iragan bihurtu artean" dio greziar klasi-koak. Jesus Trincado, oraingo aldian ere etorkizun iragana dugu.

*Josemari Velez de Mendizabal*

inpresio ona



inprimategi eta  
autoedizio  
zerbitzuak

Ozaeta 1, Tfnoa: 76 27 41 BERGARA



**gili gili**

Iturriotz,9 Tfnoa:799457

**GIROA  
AROTZAK**

Iturrioz 14, ARRASATE

**HIRE**

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

**MARENAZA**

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07  
ARETXABALETA

**MARTINEZ**

**aroztegia**

Sukaldetan  
neurri guztietako  
altzariak

Araba Etorbidea 13,  
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

**PAZI-OLA SA**

Zaldizpe kalea 2,  
Tfnoa 79 29 91  
ARRASATE

**Alkateari azoka plazaz**

Idazti honen bidez ardura hau azaldu nahi dizugu:

“Arrasate Azoka Plazarik gabe. Azoka Plaza itxi egingo da.”

Egun hauean, horrelako esaldiak behin baino gehiagotan irakurri izan dugu zoritxarrez gure herriko albisteetan.

Benetan harritzekoa da nola Gobernuko Batzordeak horrelako aurreerabaki bat har dezakeen kontutan izan gabe herri baten Azoka Plazak etxeoandreei erosketak egiteko ematen dizkien aukerak eta abantailak ikusirik. Hau da, produktuak merkeago aurkitzea, kalitate hobean eta produktu horien bilduma errezeko posibilitatea.

Udalak bazekien 1990.ean postu-kontzesioen epea bukatzen zela, baita Azoka Plazako instalazioen egoera nolakoa zen ere. Kontua da, arazo hau konpontzeko Arrasate herriak beharrezkoa duen eta garai baten izan zuen bezalako Azoka bat jarri beharrean, erabaki errezena hartzen da, Azoka Plaza itxi, eta bere ordez beste zertxoren bat ipini. Ez dugu uste aire zabaleko gune batek Arrasateko beharrak ondo bete ditzakeenik, ezta baldintza onak eskaini ere. Beste gauza bat ere esan nahi genuke, Maxi Eroskik ez duela betetzen azoka baten funtzioa.

Gure zalantza da Arrasaten zerbitzuak hobetu egin beharrean, gero eta okerrago ez ote doazen eta gauzak kendu, ipini baino errazago egiten direla. Eritzi hau kontutan izango duzulakoan agurtzen zaitugu.

Begoña Unamuno  
Felisa Axpe  
Maria Bilbao  
Mukel Alberdi  
Miren Yarza

**Kaixo adiskideok!**

Kotxea daukagun herritar talde bat gara. Ilusio handiz gure kotxetxoa erosi genuen, zerga guztiak ordaindu, eta orduantxe hasi ziren gure buruhaustek.

Arrasatek gaur egun badirudi arazo handiak dituela zirkulazio eta aparkalekuen alorrean. Denok dakigunez, zirkulazio arazoei laster emango zaie irtenbidea, saiheste bidea dela eta. Baina aparkaleku eza hor dago.

Eta beste herritar batzuen moduan kotxeak debekatuta dauden tokietan uztera behartuak egon gara. Orain arte ez da egon iskanbilarik. Baina, gabonetatik aurrera Ertzaintzak “lan izugarria” egin du gaizki zeuden kotxei multak ezartzen.

Gu orokorrean ez gaude multen aurka, baina Udalak konponbiderik ipintzen ez duen bitartean, ez ditugu multa hauek bidezkoak ikusten. Udalak aparkaleku berriak egin eta egiten dituen bitartean multa hauen ezarpenei utzi behar zaiela pentsatzen dugu. Eta Udala tarte honetan Ertzaintzarekin arazoa konpontzen saiatu behar dela.

*Arrasatear talde bat.*

**Arantzazuren aburuez**


Diozunez, benetako txapel-duna Euskitze izan da. Gezurrezkoa, beraz, Lopategi. Gazteegia izatea izan bada zenbaitendako oztopo puntuak ematerakoan, nola arraio konpreni behar dugu epaimahaiaren gehiengo orokorrak Lopategi Euskitzeren aurretik edukitzea sailkapenean? Eta, ez bakarrik sailkapenean, puntutara ere 30etik gora kendu bait zizkion. Kapritxo eta kasualitate hutsa ote?

Bistan dago nor izan den txapel-dun, eguneko lanean, jakina. Bakoi-tzari berea, inor aztoratu eta inongo alde txarrik gabe, eta finaleko giroa denondako.

Ongi da belaunaldi alkartasuna edukitzea, baina hainbeste ere, kontxo!!

*F. Muniozguren*

# Zer deritzozu autodeterminazioaren inguruan sortu den eztabaidari?



**Vicente Uribetxebarria**  
(jubilatua)

Nik ondo ikusten dut. Ahal den ondoen irtenez gero, hobe. Ea behingoz bakea eta askatasuna dugun.



**Nekane San Migel**  
(abokatua)

Baliteke polemika etorri den tokitik etortzean, hau da Kataluniatik PNVk gaiari heltzea trena ez galtzearren.



**Beatriz**  
(etxeakoandrea)

Nik benetan gauzak jendearen izkurtuan ezin egin daitezkeela uste dut.



**Javier**  
(langilea)


Nire ustez partidoen propaganda da beste ezer baino.

**L E N I Z**

**AUTO ESKOLA**

ARRASATE-Aldai, 9-Tel. 79.46.04

ESKORIATZA-Arana, 13-Tel. 79.36.59



*Jesus Giraldo*

**LISERI-APARATUA**

**X Izpiak, endoskopia**

(Lagun Aro, Gipuzkoako Foru Aldundia, Previasa, Adeslas (Muface) eta partikularrak  
Kontsultak arratsaldeetan

Loramendi 6, 2. B (Eguzki dorrea) Tfnoa: 79 04 14 Arrasate

**MemesA**

**79 42 22**

**ZENTRO  
PSIKOPEDAGOGIKOA**

Zerbitzuak:

- \* Diagnostikoa - Orientazioa
- \* Estimulazio goztiarra
- \* Erreabilitazio funtzionala  
(Psikomotrizitatea eta hizkun berrezlera)
- \* Logopedia
- \* Laguntza terapia
- \* Mota guztietako eskola arazoak, enuresia  
(Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea 10,

ARRASATE TFNOA: 79 48 77

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetzeak:**

Arrasateko Eskualde-Ospitalea .....	795300
Igualatorioa .....	790500
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak) .....	793900
(emakumeak) .....	794411
Buru osasunerako zentrua .....	799011

**Gurutze gorria:**

Bergara .....	765576
---------------	--------

**DYA**

Antzuola .....	766291
----------------	--------

**Anbulatorioak**

Arrasate .....	791357
.....	799722
Oñati .....	780852
Eskoriatza .....	798896
Aretxabaleta .....	797458
Aramaio .....	(945) 455116

**Anbulantziak:**

Gipuzkoako ambulanziaz .....	458744
------------------------------	--------

**Udaltzaingoa:**

Oñati .....	780411
Bergara .....	761469
Arrasate .....	791439
Aretxabaleta .....	791052
Eskoriatza .....	790322

**Ertzantza:**

Arrasate .....	797199
----------------	--------

**Suhiltzaileak:**

Udal taldea .....	790900
Udal taldeko suhiltzaile	
burua .....	792072
Zubillagako Eskualde-Parkea .....	782800

**Matxurak:**

Urak (udal zerbitzua) .....	790900
Elektrizitatea (Iberduero) .....	790581
Gasa .....	900 400 523
.....	797844
.....	797678

**Garraioak:**

Taxiak .....	791222
P.E.S.A. ....	791419

**Hirugarren adinarentzako zentruak:**

Iturbide Egoitza .....	797211
Abaroa jubilatuen egoitza .....	798157

**Kontsumitzailearentzako informazioa:**

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta	
Erabiltzaileen Elkarte .....	798777

**OSTIRALA 19**

— Zinea: Alai: "Si te dicen que caí". 7 eta 10etan.  
 Novedades: "Al filo del abismo". 10,30etan.  
 — Goardiako farmazia:  
 M. Corcuera. Musakola.

**LARUNBATA 20**

— Zinea: Alai: "Black Rain". 5, 7,30 eta 10,30etan  
 Novedades: "Al filo del abismo". 5, 7,30 eta 10,30etan.  
 — Antzerkia: "Flaminio" antsezlana "Tantaka" antzerki taldearen eskutik. Gaueko 10,30etan Amaia antzokian.  
 — Kontzertua: "Los suaves". 11etan Arrasateko Polikiroldegian.  
 — Goardiako farmazia:  
 J. A. Irizar. Eurguin.

**IGANDEA 21**

— Zinea: Alai: "Black Rain". 5, 7,30 eta 10,30etan.  
 Novedades: "Tres fugitivos". 5, 7,30 eta 10,30etan.  
 — Auto krosa. Meatzerrekako Sarako zelaian, goizeko 11,30etan.  
 — Goardiako farmazia:  
 L. Amezua. Sta. Marina.

**ASTELEHENA 22**

— Zinea: Alai: "Black Rain". 7 eta 10etan.  
 Novedades: "Tres fugitivos". 7,30etan.  
 — Goardiako farmazia:  
 A. Ruiz. Magdalena.

**ASTEARTEA 23**

— Zinea: Alai: "Black Rain". 7 eta 10etan.  
 — AEDk antolatuta eskulan-ikastaroa. Arratsaldeko 3etan AEDren egoitzan.  
 — Goardiako farmazia:  
 Morales. San Andres.

**ASTEAZKENA 24**

— Zinea: Alai: Ez dago emanaldirik.  
 — Goardiako farmazia:  
 Azkoaga. Ferrerías.

**OSTEGUNA 25**

— Jubilatuentzako dantzaldia. Abaroa elkartearen arratsaldeko 6etan.  
 — Zineklub: "Terciopelo Azul". Amaia antzokian arratsaldeko 8,30etan.  
 — Goardiako farmazia:  
 Español. Iturriotz.

**ERAKUSKETAK**

**Oñatiko Etxe Aundi jatetxean, Arantxa Bascaran arrasatearraren oleo lanak ikusgai.**

**Zeramika erakusketa.** Elorrioko Arriola aretoan, Imanol Aranburu arrasatearraren zeramika lanak ikusgai. Zine emanaldiak baino bi ordu lehenago eta bi ordu beranduago.

**IRTEERAK**

**Aiako harriak-Blanditz-Oiartzun.** Besaide mendizale elkarteak antolatutik. Izen emateak Besaideren egoitzan. Iteera urtarrilak 21, igandea, goizeko 7etan. Prezioa 2.200 (bazkideentzat), 2.500 (ez bazkideentzat), sagardotegi-ko bazkaria eta bidaia barne.

PROMOCIONES MARKULETE, S

# NABE INDUSTRIALEN SALMENTA

Mendi-Etxebarrin

445 m<sup>2</sup> tik aurrera sarbide zabalarekin

\*Plantartekoa eta zubi-garaia, aukeran.


\*Xafla bikoitz eta isolamenduzko estalkia

\*Zerbitzuak: Saneamendua, telefonia, energia elektrikoa eta edateko ura.

Informazioa eta salmenta: Tfnoak: Gasteiz 28 67 60

27 79 60

Arrasate 79 97 95



LORICA



sa.

**zibro  
kamin**



# HOTZ-BERO

## KLIMATIZAZIOA

Kanpantorpea 2, Tfnoak: 79 70 98 eta 79 67 54 ARRASATE

“Arrasateko itzuliaz balia, izan dugu ere euskal aste-kari berri eta berezi bati buruz ere xehetasun politik...Arrasate Press izenekoa, dena euskaraz, urrik zabalduko dutena publizitateak berak ordaindu behar duelakoan. Nehor gutik sinesten omen zuen asmu horretan. Bainan hona non 45. zenbakia agertu den joan den ortziralean, beti bezala, bere 40 orrialdeekin eta lehen lumeroa 1.700etan atera balinbazen, oraikoa 5.700etan ateratzen den. Erran behar da 5 lagun lan horretan bakarrik ari direla, eta ere, 5 langile horiek delako kazetak hazten dituela. Publizitatea, dena euskaraz, Arrasateko bereko saltzaileak dute ordaintzen. Artikuluak eta berriak oro euskaraz, hauek ere, laburrak dira, aski umoretsuak, politikatik bazter begiratuak eta bereziki Arrasate eskualdeko irakurleari buruz zuzenduak”.

*(Herria astekarian)*

“Ez duk bizitza honetan galtzaile erabatekoa kontsideratzen naizelako, baina beti ederragoak iruditu zaizkidak kausa galduak. Euskaldun izateak ere markatzen dik eta sentsibilitate kontua ere baduk, jendeak, gure gizarteak begiratu batera ongizatea eskaintzen badu ere, asko sufritzen dik, zorion itxurazko horren azpian marginazio poltsa haundiak zeudek eta bakardadea izkututzen duk. Mundu hori, ikuspegi ofizialak ukatzen duen mundu hori duk neri gehien interesatzen zaidana”.

*(Iñaki Mendigurenek, Egin egunkarian)*

“Herri honetan orduak sartu eta arriskatzen dutenen irudia txarto ikusia dago. Ondorioz, gizartearen zati bati, administrazioari, ardura larregi utzi diogu. Dena dela, gero eta gehiago dira enpresa- eta gizarte- protagonismoa eskatzen dutenak”

*(Jose Antonio Garrido, Iberdueroko lehendakariak Arrasaten)*

**Gure kasko historikoetako etxeek suteen aurkako neurri egokiak dituzte?**

Arrasateko kasko historikoko etxeek, Gipuzkoako beste kaskoetako etxeen arazo berdintsuak dituzte. Etxe horiek, zaharrak direnez, gaur egun egiten ari diren etxeekin konparatuz, askoz ere arrisku gehiago dute. Egurrez egindako etxeek, garbi dago arrisku gehiago dutela.



Baina baditu bi alderdi on Arrasateko kasko zaharrak. Bata, beste leku askotan ez dauden urpaldoak dituela eta horrela zerbait gertatzen denean, erasoari kopeta erakusteko sistema, behintzat, baduela; bestea suhiltzaileen laguntza oso urrean duela, alegia. Argi utzi beharra dago, Oñatiko Zubillaga auzoan dagoen suhiltzaileen etxea bailarentzat dela, eta ez herri batentzat bakarrik. Zubillaga auzotik Arrasatera iristeko ez da denbora luzea behar. Eta herritar guztiek jakin behar dute suhiltzaileei deituz gero minutu bat barru aterako direla sua dagoen lekura. Pentsa dezakezue sua gertatu ondoren suhiltzaileek iritsi arte denbora luzea igarotzen dela. Hori horrela gertatzen denik ez dugu ukatuko, baina bai aitortuko ez dela suhiltzaileen erruz gertatzen.

Zoritxarrez sua gertatu ondoren suhiltzaileei deitu arte denbora pasatzen da eta gero gertatzen da gertatzen dena, alegia, suhiltzaileak berandu iristen direla.

Horrelakorik gerta ez dadin, herritarrek garbi izan behar dute: bapatean suhiltzaileei deitzea. Honela jokatuz arriskua asko gutxitu daiteke.

Garbi dago beraz, Arrasateko kaskoko etxeak beste leku batzuetakoak baino hobeto daudela.

*Donato Unanue Elustondo*

*Foru Aldundiko Udal Harremanetako Zuzendaria*

**beatriz**  
oinetakoak eta  
poltsak

Erdiko kale 11. Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE

**ERAÑA**  
**AHOLKULARITZA**  
**OROTARAKO**  
**ASEGURUAUAK**

Kontzesiño kalea 4, behea  
Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE

**AURRERATZEKO**

**SF**  
**AIZKORA**

**AUTOZERBITZUA**

Maalako Errabala 7, Tfnoa: 79 15 56

**KLINIKA DENTALA**

**DOANEKO AURREKONTUA**

- \* Odontologia orokorra
- \* Protesi finkoa
- \* Protesi mugikorra
- \* Haur eta helduentzako ortodontzia

Iturriotz kalea, 7 bis-behea. Tfnoa: 79 73 88 ARRASATE

**ARRASATE**  
**PRESS**

**79 71 64**



## “Flaminio” obra, Tanttaka taldearen eskutik

Urtarrilaren 20an, larunbata, Tanttaka antzerki taldeak “Flaminio” obra antzestuko du Amaia antzokian, gaueko 10,30etan.

“Flaminio” lana G. B. Pergolesik idatzitako komedia musikala dugu. Hogei antzesle eta kantorek jartzen dute lana eskenan.

Antzesleak Koldo Losada, Niko Lizeaga, Alberto Arizaga, Mireia Gabilondo, Teresa Calo, Ifiaki Sarasola eta Garbi Losada.

Kantoreak berriz, Koldo Losada (baritonoa), German Torrellas eta Jordi Freixa (baxuak), Isabel Alvarez, Anabel Rus, Maite Arruabarrena,

Izaskun Arruabarrena eta Mar Carrera (sopranoak), Myriam Vincent (mezzoa), eta Ifigo Arbiza (tenorea).

Musikariak, Jose Rada eta Javier Sarasua pianofortean, eta Juan M. Ruiz oboean.

Esan bezala, “Flaminio” komedia musikala dugu, eta ondorioz umorea eta musika ditugu nagusi. Gehienbat ere bizitza topera aprobetxatzearen moraleja eskaintzen digun lana.


Zuzendari musikala Jose Rada dugu, eta zuzendari nagusia Carlos Zabala. Sarrera, 500 pta.

### ■ Besaideren irteera

Besaide Mendizale Elkartek irteera antolatu du datorren iganderako, urtarrilak 21. Ibilbidea, Aiako Harriak-Bianditz-Oiartzun. Irteera goizeko 7etan, Garibaiko geltokitik. Bazkideek 2.200 pta, bazkideak ez direnek 2.500, eta gazteek 1.500 (bazkaria sagardotegian eta bidaia barne direla)

### ■ Los Suaves

Larunbat gauean, Musakolako kiroldegian *Los Suaves* rock talde galiziarra izango dugu ikusgai. 10etan ekingo diote emanaldiari, eta sarrerak, aurrez 1.000 pta, eta bertan erosiz gero 1.200 balio izango du. *Los Suaves* taldeak 1982an kaleratu zuen bere lehen diska; larunbatean, ostera, azkenengoaren aurkezpena.



### Goikobalu abesbatza

Urtarrilaren 17an ekin diote Goikobalu abesbatzako partaideek berriz ere entseiatzeari. Abatetxean, arratsaldeko 8etan. Bide batez, arrasatear guztiei gogoratu nahi diete oraindik ere garaiz daudela sortu berria den abesbatza honetan parte hartzeko, edo bestela, hain beharrezkoak diren dirulaguntzak emateko (GKn, LAKn eta AKMean eraman daitezke inskripzio txartelak).

## Bainugela-erakusketa

# I RE KI B E R R I A !!!

## ibarluzea

Olarte 19-21, Tfnoa: 79 22 49 ARRASATE



Kanpoan uso, Abaroan Lege sikurik nahi ez

## Pattarra dantzan

### Udalak jubilatuen etxeek egindako eskaera aztertuko

Hasieran uste baino korapilatsua goa gerta daiteke Euskal Herriko Udalen Elkartek prestatu, eta Arrasateko Udalak iraileko plenoan behin behineko onartu zuen udal establezimientuetan alkohola eta tabakoaren salmenta arautuko zuen ordenantza.

Bertan hemezortzi urtez beherakoei alkohol zein tabakorik ez saltzea erabaki zen, hamasei gradutik gorako edaririk ez saltzea, eta era berean alkohola eta tabakoa saltzeko makinarik ez onartzea.

Mondragoeko lau jubilatuen etxeek alegazio bat aurkeztu dute, etxe horien izaera pribatua azpimarratuz, eta ondorioz arau horiek bertan aplikatu ez daitezela eskatuz. Jubilatuen artean bazkal eta afal osteko

kopak hartzeko ohiturak badirudi zerikusirik handia duela eskaera honekin. Udalbatzak Osasun sailera zuzendu du eskaera, lehenbailehen irtenbide egokia eman diezaion.

Beste hainbat toki ere problematikoa izan daiteke, hala nola Atxabalpen, Kiroldegian eta Azoka Plazan dauden tabernak, musika jaialdiarako eratzen diren txosnak, etab.

Hurrengo plenoan, araudiaren mugak argi eta garbi mugatuko dituen behin betiko erabakia hartu aurretik, zehaztu egin beharko dira aplikazioaren erizpideak.

Esan bezala, oraingo honetan behintzat gure zaharrek argi erakutsi dute "Lege sikua" ez datorrela euren ohiturekin bat. Izan ere, pattarraren indarra aspaldiko kontua da.

### Inuxentada bat, ez bi

Zenbait irakurle Inuxente biharamonean atera genuen alean bi inuxentada idatzi genuelakotan dago.

Kioskoarena inuxentekeria zen, gehienok ondo asmatu zenuten bezala. Ez, oster, milioi erdiko afariarena. Albiste hori egia santua da eta bertan ematen diren datu guztiak, menua barne, aurretiaz behar bezala kontrastatu eta egiaztatutak.

### Erosketak euskaraz

Urtarrilaren 19tik aurrera hasiera emango zaio Arrasaten *Erosketak arinago egiteko* kanpainari. Kanpaina Euskal Herriko 26 udalerritan antolatu da, bertako Udalen ekimenez, eta euskaldunok erosketak egitean ere euskara erabiltzea du helburutzat.

Bi dira kanpainaren euskarriak: alde batetik libreta txikiak, erosgaiak apuntatzeko orri zuriak dituztenak eta azalean erosgaien zerrenda euskaraz daukatenak; bestetik, kartel modukoak erosketetan gehien erabili ohi diren esaldiak jasotzen dituztenak. Libretak etxeetara banatuko dira eta kartelak berriz, dendetan jarriko.

Finantziazioan Lankide Aurrezkiak lagundu du, kostu handiena Udalak ordainduko badu ere.

### Lehen instantziko epaitegia

Ostiral honetan bertan irten dira Xabier Zubizarreta alkatea eta Jose Mari Egafia idazkaria Madrilerantz. Beren asmoa, gaur egun Arrasaten ezarri nahi den Bake-epaitegiaren orde, lehen instantziko epaitegia lortzea. Ikusi egin behar zertan gelditzen den kontua.

# ZAINDU



UMEAK ETA GAIXOAK  
ZAINTEKO  
ETXEZ ETXEKO  
ZERBITZUA

Zarugalde 16, 3. esk. Arrasate 79 13 37



## EPPren Batzar Orokorra

**1.000 milioiko aurrekontua 89-90 ikasturterako**

Elektronika laborategiaren inaugurazioaren ostean, EPPren Batzar Orokorra bildu zen bertako areto nagusian. Mahaiburuan Jose Luis Madinagoitia, EPPko lehendakaria, eta Iñaki Lakunza, zuzendaria.

Azken honek irakurritako txostenean argi gelditu zen azken krisialdi orokorretik irteteko Eskolak egokitu egin behar duela bere egitura fisikoa, Europako zentruen maila berean jarri nahi badu, behintzat. Hor-tik ikasturte honetarako sostenimendu eta inbertsioetako aurrikusitako 1.000 milioiko aurrekontua.

Tailer berriak, elektronika laborategi berriak eta jantoki, sukalde eta tabernaren berrikuntza aipatu ziren adibide gisa.

LKAREN ekarpena (100 milioi) ere aipatu zen, herri, probintzia eta

Euskadi mailako instituzioekin lortutako akordioak bezala.

Bereziki azpimarratu ziren Europari begira Eskolak azken urtean eman dituen pausoak, Erasmus eta Comett bezalako egitasmoetan parte hartuz. Esan bezala, guztia ere gainera datozkigun garaiak egokiro prestatzeko asmoz.

Bukatzeko, aipatu aldaketa txiki batzu egin zirela erretore kontseiluan. Horrela Jose Luis Madinagoitia segituko du lehendakari izaten, Agustin Markaide lehendakari-ordea, eta Patxi Zabala idazkaria. Bokalak, berriz, Jose R. Torrealdei, Agustin Olarieta, Jose R. Gisasola, Rafael Leturia, Patxi Larrañaga, Eneko Akarregi, Estanislao Oiarbide, Sebas Gorosabel eta Jose R. Elorza.

## Usteak uste.


Joan den astean Arrasateren osasun ekonomikoaren berri ematen diguten bi gertaera aipagarri gertatu ziren: EPPren elektronika-laborategi berrien inaugurazioa eta Saiolanek Iparraldeko Lana kooperatiba elkartearekin sinatu zuen hitzarmena.

Laborategien inaugurazioan egunero ikusten ez dugun enpresaria etorri zitzaigun, Jose Antonio Garrido, Iberdueroko lehendakaria. Kooperatibak eta, orohar, Mondragoeko giza ingurunea gorai patzeaz gain, gure artean orain arte behintzat hain estimatuak izan ez diren ideiak plazaratzen ausartu zen, hala nola, desberdintasun soziala balore positibo moduan planteiatu zuenean. Desadostasunak desadostasun, hitzaldi polita, geroaren alde hain tinko apustu egin duen Eskola-entzatzat.

Saiolan arrasatear askok gutxi eta txarto ezagutzen dugun erakunde txarto, enpresa eta ekimen berri askoren abiapuntu baliosa. Saiolan ez dago inoren zain, eta oraingo honetan beste aldeko euskaldunekin estutu ditu harremanak. Haiengandik ere izango dugu zer ikasirik, dudarik ez.

Guzti honen erdian, bada zenbait jende Arrasateri bailara honetan duen geroz eta pisu handiagoagatik, Justizia alorrean ere beste maila egokiagoa dagokiola uste duena. Aste honetan bertan gure ordezkari-tza bat Madrilera joan da, dossier sendo baten laguntzaz, eskaera hori bideratu asmoz, hau da, Mondragoek izan dezala hemen bertan lehen instrukzioeko Epaitegia. Lortuko al dute!

*Joxe Aranzabal*



**Gas, gasolio eta elektrizitatezko berogailu eta aire girofuko instalazio elektrikoaren disenua, muntala eta mantenua**

Industrialdea, B-5, ARETXABALETA Tfnoa: 79 03 03 ARRASATE Tfnoa: 79 05 18

**LILURA** -ek zeure moda diseinatu eta sortzen laguntzen dizu

Zerkaoteta 5, behea.  
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE



## Arau Osagarriak ikusgai

*Monterronen, hilaren 25a arte*

Azken pleno arruntean, Udalak lege subsidiarioen Arau Osagarrien zirriborroa onartu zuen. Arau Osagarriok erdialdetik kanpo dauden baso eta baita zenbait auzotako lurren erabilpena ere arautuko dute.

Auzo mailan, Bedofia eta Udala hartu dira kontutan etxeak eraikitzeko orduan. Baserrian bizi nahi dutenak mendi, gurdi eta bestelako basabideak kontutan hartuz, egin den zirkuitora mugatu beharko dira. Arau hauetan, bestalde, landareria hartzen da kontutan (non landa

daitekeen pinua eta non ez), eta ingurunean izan lezakeen eragina.

Lan guzti honen berri Monterronen aurki dezake interesatuak, hilaren 25a arte egongo da ikusgai eta. Esan behar, gainera, Udalak interes handiz antolatu duela erakusketa hau, herritarren eritzi eta proposamenak jaso nahi dituelako.

Datorren astelehenean, hilak 22, arratsaldeko 7etan zirriborroa egin duten teknikariak etorriko dira Monterronera, proiektuaren berri eta eskatzen diren argibideak emateko.

### Kartel-lehiaketa

Zabaldu berria da 1990 urteko haratusteak jaietarako iragarkia aukeratzeko kartel-lehiaketarako deialdia. Oinarriak, honako hauek:

Edozein arrasatearrek har dezake parte, eta kartelaren neurriak 50 x 65 zentimetrokoak izango dira (formatu bertikalez).

Kartelek derrigorrez testu hau izan beharko dute: 1990 Haratusteak Arrasate.

Egilearen nortasuna azaldu gabe eta atzekaldean lema bat dutela aukeratu behar dira kartelak. Horrekin batera, sobre itxi batean lema bera eta egilearen datuak adieraziko dira.

Kartelak urtarrilaren 25a, arratsaldeko 6,30ak baino lehen, Udaletxeko Kultura Departamentura bidali beharko dira. Saria 50.000 pta.

### Jaiotzak

Santos Rementería *Josu* Abenduaren 29an.  
Palacios Ugarte *Joseba* . 30ean.  
Iglesias Mateos *Mikel* . Urtarrilaren 2an.  
Tijero Vidondo *Iker* . 5ean.  
Novo Burgos *Sara María* 8an.  
Agirre Aginagalde *Alasne* . 9an.  
García Lizarralde *Oiane* . 10ean.  
Madinabeitia Serrato *Izar* . 10ean.  
De la Cruz Muguruza *Beñat* . 11an.  
Larrañaga Arrue *Patri* . 11an.  
Gonzalez Carmona *Mikel* . 12an.  
Galdos Torres *Deiane* . 12an.  
Nogales Baladron *Paola* . 13an.

### Ezkontzak

Jose Manuel Moreno Mateo & Aurora Belinchón. Abenduaren 20an  
Jesus M<sup>o</sup> Iriarte Oruna & M<sup>o</sup> Purificación Sanz Yuste. Urtarrilaren 5ean zibilez.



### Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea  
Jose M<sup>o</sup> Gomez doktorea  
A. Otalora doktorea  
A. Estomba doktorea  
M<sup>o</sup> Jose Ruiz doktorea


Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulifisa...  
Jose Luis Higura: Kirurgia, basektomia...

Lagun-Aro, Asisa, Previsa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, asteleheneetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara eta 3etatik 7,15etara  
telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea

ARRASATE



## 1990eko aurrekontuak

### Aurten 2.000 milioi pta.ko muga gaindituko

Egun hauetan, Udala 1990erako aurrekontuen zirriborroa prestatzen ari da. Besteak beste Xabier Zubizarreta, Xabier Lasaga, Iñaki Balzategi, eta Jose Mari Eraña dira lan horretaz arduratu direnak.

Zirriborroa prestatu ondoren, urtarrilaren 23an aurkeztuko da Hazienda Batzordean. Bertan proposamen ezberdinak jaso, eta hilaren 26an Gobernu Batzordeak lantuko du gaia, 31rako diktamena burutu asmoz. Urrats horiek eman eta gero, otsailaren 2an Udalak ohizko plenoan jorratuko du gaia.

Aurtengo aurrekontuak iazkoen jarraipena dira. Diru-sarrerak %12a igotzen badira, gastuak ere %5-6ean gehituko dituzte. Ondorioz, 2.000 milioitik gora jarriko da listoia.

Kapitulu garrantzitsuena seigarrena izango da, 950 milioi erabiliko direlarik bertan (Aurrekontu osoaren %40a). Kapitulu hau inbertsio ezberdinei dagokie, eta gehienbat ere iaz hasitakoei jarraitzea litzateke asmoa: Iturripeko kiroldegia, Ferialeko frontoia, Udaletxearen berriztea, Oxinako zubia, Santa Barbarako urbanizazioa, etab.

### ■ Ikasketak EEBBn

Urtarrilaren 16an, asteartea, *Spanish Heritage* enpresak EEBBn 90-91 ikasturtean ikasketak egiteko martxan jarria duen programak aurkeztu zituen San Viator ikastetxean.

*Udako ikasketak:* 4, 5, 6 edo 8 astekoak. Taldea koordinatzaile batekin irtengo litzateke EEBBtara, eta behin han gazte bakoitza familia ezberdinetara bialduko lukete. Gutxienezko gastua (4 aste), 125.000 pta, bidaia aparte.

*Urte osoko ikasketak:* BBB, REM edo COU ikasketak egiteko. Hango familia batekin biziko lirateke (gustokoa ez bada, aldatzeko posibilitateaz). Guztira 610.000 pta, bidaia aparte.

*Helduentzako ikasketak:* Bakoitzak nahi duen tokira, nahi dituen ikasketak, eta nahi duen iraupenarekin joango litzateke. Ondorioz, prezioa aukeratzen denaren funtzioan.

Dena den, argitasun gehiago nahi duenak deitu 945-22 71 89 tfnora..

### ■ Kurtze-txiki

Gobernu Batzordeak urtarrilaren 15ean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen: Gipuzkoako Kutxari, herri honetako Kurtze-txiki mendian dagoen lurzatia Udalarri lagatzeko eskatzea, bertan baso-birlandaketa egiteko. Gehienbat ere bertan ematen den erosioa gelditzea litzateke eskari honen helburua.

**LASAGABASTER**

**Jantzidenda**

**Bertan izango duzu beti modako  
gauzarik onenen aukera zabalena**

Garibal 9, Tfnoa: 79 89 97



## Sua prebenitu eta itzaltzeko ikastaroa

**U**rtarrilaren 23an hasi eta otsailaren 1a arte, Zubillagako suhiltzaileen parkean "Sua prebenitu eta itzaltzeko irakasleentzako ikastaroa" antolatu du Hezkuntza sailak.

Ikastaroan parte hartuko duen irakasle kopurua 52koa da eta bi taldetan banatuak izan dira ikastaro hau burutzeko.

**1. taldea:** Urtarrilaren 23, 24 eta 25ean. Erguin, Ferial, San Andres, Musakola, Merced, Udal Euskalte-

gia eta Eskola Politeknikoa.

**2. taldea:** Urtarrilaren 30, 31 eta otsailaren 1ean. San Viator, San Frantzisko Xabier, Arrasate Musikal eta Ahizke/Cim.

Ikastaroak hiru egunetako iraupena izango du. Lehenengo bi egunetako saioak teorikoak izango dira eta hirugarrena praktikoa (saio teorikoen ordutegia 4etatik 5etara izanik eta praktikoarena 4etatik 5,30etara).

Saio teorikoen edukia, sua zer den, nola eta noiz itzali behar den,

itzalgailu mota ezberdinak eta hauen erabilera, eta Zubillaga parkean dituzten baliabideak ezagutzea.

Saio praktikoaren edukia, estintore eta mangeren erabilera, sua itzali, estintoreari prezintoa kendu eta deskarga egin.

Garraioari dagokionez, autobusa kaleko geltokitik aterako da egunero Oñatirako bidean, arratsaldeko 3,30etan. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu Udaletxeko Hezkuntza Sailera, 79 09 00 telefonora.

# Trapos

## BOUTIQUE

Urbe auzoa 2, Tfnoa: 79 83 38 ARRASATE

**VE ECUADOR**

Kontzesiño 2,  
Tfnoa: 79 14 06  
ARRASATE

**L**ARRINGAN

auto gidarien eskola

**KLASE TEORIKOA  
IRAKASLEAREKIN**

Garibal 3, 79 22 96 ARRASATE



## Geroari begira

### Elektronika laborategi berrien inaugurazioa EPPn

Bost hilabete t'erdiko obren ondoren, urtarrilaren 9an EPPren elektronika laborategi berriak inauguratu ziren. Izan duten ehun milioiko gastua Eskolak Lan Kide Aurrezkiarekin bost urtetarako sinatu zuen 500 milioiko aurrekontutik ordaindu da.

Inauguraziora Jose Antonio Garrido, Iberdueroko lehendakaria, Jose Luis Madinagoitia, Eskolakoa eta Iñaki Lakuntza EPPko zuzendaria bildu ziren, beste jende askorekin

batara. Denek arreta handiz entzun zuten Iberdueroko lehendakariak areto nagusian *Enpresa lidergoa eta giza ingurugiroa* izenaz eman zuen hitzaldia. Eztebaidagarri bezain interesgarria.

Berbaldiaren ostean instalazio berriak bisitatu zituzten, Eskola, LKA, Fagor, Ikerlan eta kooperatibetako zenbait pertsonaliteren laguntzarekin. Geroari begira eta Eskolaren etorkizunerako, behar beharrezkoak izango dira laborategiak.


## Toninok

### "Cum Laude"

Urtarrilaren 9an Jose Antonio Mendizabal arrasatearrari "Cum Laude" a eman zioten, "Elkarte Anonimo Laboralak gizarte-ekonomiaren testuinguruan" gaiari buruz aurkeztutako tesiagatik.

Toninok 43 urte ditu. Arrasaten jaioa, Lovainneko Unibertsitatean burutu zituen ekonomia ikasketak. Gaur egun Leioako Kazetaritza fakultatean dihardu lanean, lehenengo mailan Ekonomia Politikoa irakatsiz (euskaraz), eta bigarren mailan Egitura Ekonomikoa (erdaraz).

Laupabost urte eman ditu orain aurkeztu berria duen tesia prestatzen. 500 orrialdeko bi tomo osatu ditu, bata teorikoa, eta praktikoa bestea. Hainbeste lan egin eta gero, merezitako saria heldu zaio orain. Zorionak!



LORAMENDI KIROLAK

BEHERAPENAK

- Lumatxak
- Anorakak

AUKERA ZABALA  
DENA KIROLARENTZAT


I  
R  
A  
T  
I

Ferrerrias kalea  
Tfnoa: 79 71 80



Urtero bezala, aurten ere urtarrilaren bostean Meltxor, Gaspar eta Baltazar agertu ziren Arrasatera. Gamelurik gabe,

zaldiz, baina haurrentzako opariz josita. Dena den, ziur batek baino gehiagok ikatza ere aurkitu zuela



Maxi Eroskira oinez joan behar zutenek gune arriskutsua zuten Musakolako zubi estuan. Arazoa konpontzeko, joan den astean zubia zabaltzeari ekin zioten. Datorren asterako bukatu nahiko lukete.

1989ko abenduaren 2an ezkondu ziren Koldo Etxebarria eta Agurtzane Mondragon, Aozaratzako elizan. Ezteibidaian Cubara hurbildu ziren. Aurrerantzean, mila zorion!




AEDren egoitzan hasi berria dute eskulan ikastaroa. Makina bat emakume elkartzen da bertan, Beatriz Arregiren ardurapean, apirilaren 10a arte iraungo duen ikastaro hau burutzeko.

*Jose Aranzabal*

ELEKTROGAILUAK  
Iturriotz, 15  
Tfnoa: 791516



AKOBEREren garantia eta zerbitzu teknikoarekin



FAGOR SUKALDEEN  
HORNIDURA OSOA  
OPARIGAIK  
Doctor Bañez 8, Tfnoa: 791892

**LOREA**

Oinetakoak  
eta poltsak  
Paz 9, Tfnoa: 25 66 32  
GASTEIZ


**ORTZI**  
erretegia

Anglozar Auzoa  
Tfnoa: 76 22 68  
BERGARA






**Kontxi San Miguel da** urtarilaren Setik aurrera Batzokiko jatetxeko arduradun berria. Aurrerantzean sukaldean Kontxi bera eta Celso Iglesias ibiliko dira. Argazkian Antonio Vita, Celso Iglesias eta Arantxa Zarraoa, langile berriak.



■ **Javier Mar, 33**, aretxa-baltarrak, Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Giza Segurantzaren Sailak antolatzen duen "Sus-tatu Saria" irabazi du hirugarren adinari buruzko lan batekin. Sari honen bidez, Euskal Administrazioak Zerbitzu Sozialei buruzko ikerketa lanak bultzatu nahi ditu. Javierrek. Leintz Osasun Zentruan hiru urte eman zituen zuzendari moduan, Aretxabaletan, eta orain Gasteizko Txagorritxu Ospitalean dabil, Mediku Zuzendari.

■ **Dolores Cortazar, eibar-tarra, 103** urte bete zituen urtarilaren 14ean. Doloresek Santa Agedako ospitale psikiatrikoan eman ditu azken 36 urteak. Igandean, bere pabeloiko 40 emakumerekin ospatu zuen bere urtebetetzea, ospitalean bertan.

■ **Iñigo Aranburu, 18**, Arrasateko Biteri Egoitzak urtero, Gabon inguruan antolatzen duen tarjeta lehiaketako irabazlea izan da. Rafa donostiarra da eta Santo Tomas lizeoan egin zuen goi batxilergoa. Gaur egun Eskola Politeknikoan injinerutzako lehen kurtsoa ikasten dihardu.



Marokkotik bueltan beltzaran-beltzaran etorri zitzaigun **Jose Luis Agote** aurtengo opariarekin: *MacIntosh IIci* berria, pantaila handi eta guzti. Orain arte erabili ditugun ordenadoreak baino sei bider azkarragoa. Eskerrik asko, Olentzero!

## AEDren alderdi komunistak armak murriztea proposatu

**A**LEMAN Errepublika Demokratikoaren alderdi komunistak armak murriztea proposatu du. Lehen harridura pasata, AEDren esanahia argitu zitzaigun: Alemaniaren Errepublika Demokratikoa (eta ez Arrasate Euskaldun Dezagun). To, aurrerantzean horrelakoak abisatu egiten dira.

Harri eta zur gelditu ginen *Hemen* astekarian goiko izenburu hau irakurri genuenean. AED bertan


egon eta guk ezer jakin ez. Ez genuen uste, izan ere, AEDren dibertsifikazioa horrenbesterainokoa zenik.



**TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA**

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



Fotokopiak  
Enkuademazioak  
Planoen erreproduzioa  
Ofiziala

Ferrerías, 23

**KIROLDEGI**  
JATETXEA


EGUNEKO MENUA  
ETA KARTA

Musakola Auzoa. 79 82 31

# Saiolan, enpresa berriak bultzatuz

## Unibertsitatea, enpresa eta administrazioa biltzen dituen egitasmoa

*Langabeziari nolabait aurre egiteko, azken urteotan enpresa sortzaile berriak bultzazen dihardute zenbait erakundek. Sagazde dugu Euskal Herri mailan lan honetan diharduen erakunderik ezagunena. Edozein modutan ere, Arrasaten Saiolan aurkituko dugu enpresa promotore edo sustatzaile gazteen prestakuntzan. Saiolanen zenbait hilabete eman ondoren, gazteek enpresa berria sortuko dute, era honetan beren egoerari irtenbidea emanez.*



Langabeziari aurre egiteko sortu zen

### EPPk sortua

Arrasateko Eskola Politeknikoak bultzatutako proiektua, gaur egun errelitate, Saiolan 1984ean sustatzaile edo promotoreen prestakuntzarako eta Enpresa-Iharduera Berrien Garapenerako sortua dugu. Enpresa sustatzaile edo promotore ideia berria garatzen duen gazteari deitzen zaio. Hau da, enpresa bat sortzeko nahia duen pertsonari deitzen zaio promotore. Saiolanen promotore honi enpresa sortzeko eman behar dituen pausuak argitu eta enpresak izan dezakeen bideragarritasuna argitzen laguntzen zaio.

Eskola Politeknikoak Saiolan sortzean langabeziari irtenbidea eman nahi izan dio eta bide batez, Arrasaten garai batean enpresa berriak sortzeko egon ziren nahiei bultzada eman. Behar bada, gure herrian industriak izan duen garapena dela eta, honek ekarri digun ero-

sotasuna dela eta, garai bateko ekimen horiek lozorroan zeuden eta Saiolanen bidez Arrasatearrek duten ekimen gaitasuna bideratu nahi da.

Saiolanen Euskal Herriko edozein gaztek har dezake parte. Saiolanek uda aldera deialdia egin ohi du egunkarien bidez. Bertan izena ematen duten gazteen artean aukeraketa egin ondoren, zenbait enpresa garatuko dituzten gazteek Saiolanen ikasteari ekiten diote. Argitu beharra

tan -zientziak orokorrean ulertuta, informazio zientziak, kimika, etab., ekonomi edo enpresa zientzietan lizentziatuak edo injineruak izan daitezke.

### Erakunde ugariren laguntzaz

Nahiz eta Saiolan Eskola Politeknikoaren proiektua izan, beronen ardura edo gestioa, batzorde sustatzaile baten esku dago. Batzorde sustatzaile honetan erakunde desberdinek hartzen dute parte, hala nola, Gipuzkoako Foru-Aldundiaren lan sailak eta zenbait enpresa eta kooperatibak, Fagor, LKA, Eskola Politeknikoa, Ikerlan, Alecop eta Alejandro Altunak, hain zuzen. Garbi ikus daiteke beraz, Unibertsitate, enpresa eta administrazioak elkarrekin dihardutela egitasmo batean bildurik.

### Egitura eta edukinak

Saiolanen gazteek 18 edo 24 hilabete emango dute enpresa beren kabuz bideratu arte eta programa hiru fasetan banatuta aurkitzen da.

Lehen lau hilabeteetan enpresa-heziketarako ikastaroa jasoko dute promotoreek. Enpresa ikastaro honetan edukin orokorrak nahiz eta zehatzak edo alor bati dagozkionak jasoko dituzte. Ikastaroak irauten duen denboran sektore bati egokitu-ko zaion azterlana burutuko dute. Hau da, alor horretan negozio aukerak zenbaterainokoak diren aztertuko dute, merkatuaren eskakizunak

## Urtero hamarren bat enpresa berri martxan jartzen saiatzen dira

dago Saiolanen gazte hauek garatuko duten enpresa ez dela beraiek duten ideia batetik sortuko, Saiolanek aurkezten dizkien enpresa proiektuetatik baizik. Gazteak zientzie-

eta enpresarenak zeintzuk diren aztertuz eta produktu, sektore, etab.ek izan duten garapena ikertuz.

Lehen fase honetan gazteak ez dira hasiko enpresa proiektu zehatza

garatzen.

Bigarren fasea zortzi hilabete ingurukoa izan ohi da. Bigarren fase honetan prospekzioa egiteaz gain, enpresa aurreproiektua garatuko dute. Esan beharra dago gazteek taldetan egin ohi dutela lan, hau da, enpresa zenbait kideren elkarlaguntzaz sortuko da.

Prospekzioa egiterakoan, izan dezaketen lehiakidetasuna, merkatuaren egoera eta bideragarritasuna aztertu beharra dute. Aurreproiektua egin ahal izateko Gipuzkoako Foru-Aldundiak lau milioiko dirulaguntza eman ohi du.

Azken fasea enpresa gauzatzea eta berau esperimentalki martxan jartzea litzateke. Epe honek hamabi bat hilabete irauten du. Enpresa martxan jarri ahal izateko, jakina denez, dirua behar ohi da. Diru hau, gazteek beraiek jarriko dute, hala ere, beste enpresa edo kooperatibe-



Honako hauek dituzue Saiolanen aritutako enpresari berriak

kin akordioak sina ditzakete diru hori bananduz.

Promozio hauen merkaturatze esperimentalerako, interes txikiko fondoa sortu da "Hazi Kapitala"

deiturikoa. Enpresen merkaturatze esperimentalerako Lankide Aurrezki Kutxarekin lortu den akordio hau beste banketxe eta erakundeetara zabaldu nahi da.

## Enpresa berriak Iparraldean

**A**ipatu dugunez, Saiolanen diharduten gazteek beren diruaz edota beste enpresa baten laguntzaz gauzatzen dute hasierako enpresa asmoa, hau da, enpresa berria sortu eta martxan jartzen dute. Esandakoaren adibide, joan den astean, Bidarten, Iparraldeko Kooperatiba Elkarteak, Lanak eta Saiolanek sinatu zuten akordioa dugu. Lankidetzak akordio honek, informatika, prezisio mekanika eta elektronika alorretan kooperatiba eta enpresak sortuko dituzten gazteak bultzatzea du helburutzat. Komenioaren bidez, adar hauek

jorratuko dituzten hiru enpresa sortuko dira Iparraldean, hain zuzen ere.

Akordioaren ondorioz, goi mailako edo injinerutza ikasketak dituzten zenbait enpresa sortzaile gazteak iaz Saiolanen hasitako kurtsoekin segitzeko aukera izango du. Gazte hauek Iparraldeko bertakoak ditugu.

Era berean, Pabe eta Adureko unibertsitateek, IUT eta Lan Berrik batetik eta Lan Berrik eta beste zenbait enpresak bestetik lankidetzak akordioak sinatu zituzten.

Saiolan eta Lanaren arteko

koordinazioa Pello Olhagaray-ren gain egongo da. Pello Olhagaray Lan Berriko zuzendaria da, Lanak duen prestakuntz zentruko zuzendaria, hain zuzen.

Akordio honetan iparraldeko lau enpresa bildu dira. Baionako SEI informatika elkarteak, Donibane Lohitzuneko Zazpiak Bat, Uztaritzeko Olabarria eta Milafrankako Copelectronic. Enpresa guzti hauek, iharduera desberdinetan dihardute. Zazpiak bat, telefono hari eta antena parabolikoak ezartzen aritzen da; Olabarriak, mekanika alorra garatzen du eta Copelectronic elektronikak.

# KiDE

## Paperdenda eta jostailudenda


Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

## J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko aurrekontuak

Otalora Lizenziatua. Arrasate

**HERRÍ Irratia**



**Radio POPULAR**  
**G I P U Z K O A**

**DONOSTIA**

Garibai, 19      O.M. 1.224  
Tel. 42 36 44      F.M. 88'5  
Fax. 42 78 21

**LOIOLA**

Azpeitia      F.M. 99'8  
Tel. 81 44 58  
Fax. 81 39 44



# Euskararen egoera Arrasaten

Arantzazu Loidi

***Galdera orokor bati erantzuteko bildu genituen Arrasaten euskararen inguruan eta esparru ezberdinetan lanean ari diren sei pertsona: nolakoa da gaur egun euskararen egoera Arrasaten? Helduen euskalduntze eta alfabetatze munduaren egoera Arrasaten? Helduen euskalduntze eta alfabetatze munduaren berri emateko Udal Euskaltegiko zuzendaria, Nati Abasolo, irakaskuntzatik Edurne Erauskin, Ikastolako zuzendaria eta Udaletik Jose Felix Diaz de Tuesta, euskara Zerbitzuko burua. AEDren aldetik Julen Arejolaleiba, eta lantegi mundutik Mikel Lezamiz ere partaide izan ziren mahaiari, eta oraingo egoera duela urte batzuetakoaz gonbaratu ahal izateko, Jose Mari Velez de Mendizabali eskatu genion etortzea.***

***Luze aritu ondoren, eztabalda polita sortu zen arren, ez daukagu orrialdeotan guztiaren berri jasotzerik, eta esandakoaren laburpena baino ez dugu egingo, hurrengo batean sakonago aztertu asmoz.***

---

**Mikel Lezamiz**

“Datu frogatuegia ez bada ere, gaur egun *Ulgor* mailan, %40a euskaldunak garela esan daiteke. Une hauetan, *Ulgorren* langilegoa euskalduntzeko plangintzarekin ari gara, eta *Aurkin* ere hasteko dira, 82tik hona utzirik bait zegoen krisia zela eta. 1977an honekin hasi ginenean, 607 lagun hasi ziren eta gero berriz, etena izan zen. Izan den aldakuntza nagusia enpresaren aldetik gertatu da, eskola erdiak lanorduetan ematen bait dira, enpresak bere aldetik ipini du zerbait, eta gainera metodologia ere asko hobetu da. Erabilpen

mailan ez da aldaketa handirik ikusi, gauza guztiak hizkuntza bietan egin behar zirela eta elebitasun hori ez

kaini behar zaio eta metodologia ere aldatu.

Gaur egungo egoerak di-tuen alde txarren artean eskola-lak euskararen erabilera mailan duen eragin eskasa aipatu nuke eta baita gizarteak duen espektatiba ere, alegia guraso askok uste du nahikoa dela haurrak ikastolara bidaltzearekin. Euskara eskolako hizkuntza bihurtzen ari da, eta hori aldatzeko ahalmen gutxi du eskolak. OHOn euskara erabiltzen bada ere, gero adina dela eta, edo ikasketak euskaraz jarraitzeko aukerarik ez dutelako, utzi egiten dute."

## Julen Arejolaleiba

"Azken sei urte hauetan, AEDk sinesgarritasuna lortu du Arrasaten eta horrek bideak zabaldu egin zituen, jendea hurbilduaz eta finantziabideak ere atereaz eta Udala ere zerbaitetan hasi den neurrian AEDk ere bere baliapideak gehitu egin ditu, Arrasate Press eta antzeko beste proiektu batzuei ere ekinaz. Hasera batean batura zena, horrelako komunikabideekin edo beste ekintza batzuekin dinamika biderkatzaille bihurtzen da.

Erakunde batean hizkuntz normalizazioa lortuko bada, bertan mugitzen direnak euskaldun izatea edo hartarako bideak jartzea beharrezkoa da, sinbologia hutsan gera ez dadin. Zeregin espezifikotzat euskara ez duten elkarteek ere konturatu behar dute gazteleraz funtzionatuz gero, bi hizkuntzen arteko aldezaurreko diferentzia handitu egiten dutela. Proiektu konkretu horietan ari direnak euskaldun konbentzitu izatearen premia azpimarratuko nuke, adibidez ikastolako irakasle bat eskolaz kanpo erdaraz aritzea bezalako kontraesanek prostuitu egiten dute gure ahalegina. Azkenean lortu behar

dena da Arrasaten talde euskaldun konpaktu batek proiektu euskalduna sortzea eta hori zabalduaz joatea"

## Nati Abasolo

"Zortzi urtetik hona, eta Udal Euskaltegiaren egoera aztertuaz, ikasleagoa erabat definitu dela esango nuke, garbi dago nor datorren eta zertara datorren. Lau talde bereizten dira gure ikasleen artean: lehenik, "selektibitatea" atean daukatelako derri-gorrez euskara ikastera datozen 16 urte inguruko ikasleak daude eta hauekin ez da, orohar, euskalduntzerik lortzen. Bigarren taldea irakasleena da, eta gehienak euskalduntzen direla esan daiteke. Hirugarrenik, kasu ezberdinetan dauden pertsonak osatutako taldea dago, arrazoi ezberdinegatik euskaltegiratzen direlarik. Azkenik, teknikariek osaturiko multzoa legoke, berealdetik edo kooperatibetako plangintza bereziaren barruan euskalduntzera datozenak.

Egoera zertan aldatu den? Bere borondatez eta euskara ikasi nahi duelako, ezerk behartu barik datorren jendea desagertu egin da. Jendearen interes berezi horrek ere badu bere alde ona, alegia, datorrena ez datorrela denbora pasa, lehen bezala jardun eta jardun eta inoiz ikasi ez. Jende horrek geuri ere gehiago eskatzen digu eta hori positiboa da"

## Jose Felix Diaz de Tuesta

"Udaletxean, azken hamar urte hauetan alde gertatu da. Barrura begira, enplegatuen ezagutzari buruz egin genuen azterketa batean ageri denez, egoera oso ona da, 30 teknika-ritatik batek ezik, beste guztiek euskaraz hitzegiten bada-kite eta administrarietan 13tik 7k ere bai. Guzti hori ez da izan Udalaren politika berezi bati esker, kasualitatez baino, azken urte bietan ezik. Erabil-

## Mikel Lezamiz



"Militantismo hori sortu beharra dago, lanetik irtetean giro bat izan behar da"

bait da betetzen. Orokorki pausoak atzera eta aurrera ematen direla esango nuke, baina honelako lan baterako egoera ekonomikoak lagundu egin behar du".

## Edurne Erauskin

"Ikastolaren kasua baka-

## Edurne Erauskin



"Euskara eskolako hizkuntza bihurtzen ari da"

rrik aztertuaz, eta Eskolau-rra eta OHO baino hartzen ez dituela kontutan izanik, euskara hutsez ematen den irakaskuntzaren barruan B eredia aipatuko nuke, eredu ezberdinak bait daude hor ere, baina halere aldaketaren beharra dago. B ereduan euskarari denbora gehiago es-

pena ere dexente gehitu dela esan behar da, zenbait batzordek euskaraz egiten dituzte gauza asko, baina halere, langileen artean diglosia berezia sortzen ari da, euskara jefeen hizkuntza balitz bezala edo.

Kanpora begira nabaria da gauzak aldatu direla, AED, A. Press, etab. horren lekuko, baina bakoitzak bere partxeo partikularra egiteari utzita, plangintza orokor baten beharra dago, momentu honetan indar asko alferrik galtzen ari bait gara, helburu zehatzak markatu gabe ditugulako”

**Jose Mari Velez de Mendizabal**

“Orain urte batzuk gaueskolan genbiltzanean, pentsatzen genuen “nire hizkuntza delako ikasi behar dut” esan beharrean “halakotarako behar dudalako nator” esatean salbatuko zela euskara, etekin ekonomikoa ateratzean, errentable bihurtzean salbatuko zela, alegia.

Orokorki hartuta, uste dut makromarkoa, Euskadi ahaztu egiten dugula, eta Euskadin faktoreak ez dira aldatu. Estatutoan adibidez, euskaldun guztiok euskara ezagutzeko eskubidea eta gatzelera ezagutzeko beharra daukagula esaten da. Mikromarkoa, berriz, izugarri aldatu da Arrasaten. Azken 20 urte hauetako aldakuntzarik handiena AEDren sorrera izan zen. Enpresa munduan ez da ezer ere aldatu, enpresako euskararik ez baitago, erabilten dena kalekoa da eta.

Mikromarko horretan, Udalak dauka zer esan handiena, herriko giza-taldeak behartuaz, euskara bultzatuaz”

**Arazoak: “Gaitza gure artean ere badago”**

Euskararen arazo eta oztopoen artean, Estatutuak esaten duenaz gain, enpresa

mailan konbenioa aipatu zen lege bezala, eta elebitasunaren alde dagoela esaten duen arren ez da praktikara eramaten, Velezen eritziz, inork sinesten ez duelako eta bestetik gauzak “euskaraz eta erdaraz” jarrita, euskaraz egiteko eskubide osoa egongo litzatekeelako. Julenen ustez, lehen errua kanpora botatzen bagenuen, buelta emateko lehen pausoa ez da legeria aldatzea, euskaldun kopuru bat gaituta eta gogoz egon ezean kontraproduzentea ere izan bait daiteke; Irlandan gertatu bezala.

“Euskara egin ahal dutenak asko dira herri honetan, euskaraz egin nahi dutenak askoz gutxiago” eta euskaratik bizi den jendea euskaraz bizi nahi duen jende izan dadin bideak jartzerik ba ote dagoen galdera bota zuen, “bestela geure gezurra sinesten ari bait gara”.

Bestalde, Arrasaten euskarak aurrera egin dezan beste oztopo bat koordinaziorik eza edo behar adinakorik ez izatea dela aipatu zen. Euskara dinamizatzailearen ustez, Arrasateko Ikastolak eta orokorki euskaldungoak herrian duen intzidentzia oso txikia da.

**Militantzia eta aukera ideologikoa, ala inkonszienteki euskaraz aritzea**

Bernardo Atxagak, behiaren atzetik Santanderrera iritsi zen Asteasuako baserritarraren kasua kontatzen du, han euskaraz ez zekitela eta zeharo harritu zen baserritarrarena, alegia. Euskararen munduan ere euskaldun izatea normala balitz bezala jokatu behar dela dio idazle asteasuarrak, baina Julen A. ren ustez, egungo egoeran ez dago gurdira igotzea baino ez dagoela esaterik, oraindik gurdia hori egin gabe dagoelako eta horretarako jende konsziente behar delako,

“euskaraz egin nahi izateko konsziente izan behar duk euskaraz egitea inportantea dela”, denboraldi bat barru

**Julen Arejolaleiba**



**“Erakunde batean hizkuntza normalizazioa lortuko bada, bertan mugitzen direnak euskaldun izatea beharrezko da”**

inkonszienteki egitea ere lortu ahal izango den arren.

Jose Felixek adierazi zigun ideologia linguistiko mailan saiaturiko den talde baten beharra ukazina dela, AED adibidez, euskaldun konsziente kopuru batetik modua bait legoke beste guztiak ere euskaraz jartzeko;

**Nati Abasolo**



**“Bere borondatez eta euskara ikasi edo hobetu nahi duelako, ezerk behartu barik datorren jendea desagertu egin da”**

halere gehiengo nagusiaren kasuan ez da hori gertatzen, Arrasate Press irakurtzen duen jendeak ez du ideologiaz irakurtzen, praktikoa eta erakargarria delako baizik, euskaraz ari dela konturatu ere egin barik. “Helburu bezala jendea integratzea lortu behar da, euskararen mun-

*duan sartzea, eta hori ez da militantzia linguistikoaren bidetik lortuko. Jende horrentzat mundu euskalduna sortu behar dugu”.*


## Jose Felix Diaz de Tuesta



**“Partxeo partikularra egiteari utzita, plangintza orokor baten beharra dago”**

AEDko ordezkariaren hitzetan, *“militantzia zer den ere kontutan izan behar da, eta militantorik behar ez den arren, ez eta funtzionari apoltronaturik ere, eta bere lanorduetatik kanpo zerbait egin nahi duen jendeari herri mugimenduetan lana aurkitu*

## Josemari Velez de Mendizabal



**“Ikastoletatik irtendako jario sozial horri herri bezala erantzuteko gai ez bagara, ikastolaren lanaren ezeztapena etorriko da”**

*behar zaio, kolektibo zabal eta heterogeneoa osatzeko”*

Militantismo hori sortu beharra dago, ordea, Mikel Lezamizen eritziz, *“lanetik irteteen giro bat izan behar da, bestela profesionalari ez nioke militante izan behar duenik eskatuko”*. Edozein gauza lortuko bada laguntzak

eman beharra ikusten du, *“eta Ulgor-eko plangintza honi ekin bazaio, Arrasaten orain dagoen giro bereziarengatik izan da”*.

Hurrek euskaraz egin dezaten giro euskalduna lortzea beharrezkoa dela esan zuen Ikastolako zuzendariak *“presiorik gabe euskaraz egiteko. Eskolak ezagupenean eragin dezake baina kaleko erabilpenean oso gutxi, zenbait ekintza antolatu arren”*.

Arrasaten une hauetan euskararentzat mesedegarri diren baldintzak daude denek ustez. A. Presse sortu zuen giroa, Telebistaren sorrerarekin gehitu egingo delakoan daude, eta bitarteko guztiak jartzearen arduradun Udalak izan beharko lukela.

## Plangintza eta dinamizazioa

Mahaikide denak bat zetozen Plangintza Orokor baten beharra dagoela esatean. Gai honen inguruan, lantegian euskara erabiltzeko kondizioak sortzeko Udala eta zenbait herriko erakunderen artean izanpetu den hitzarmenaren berri eman zen.

Dinamizazioaren beharra ere ukazina izanik, lan hori nork burutu behar lukeen ere aztergai izan zen, eta Udaleko Zerbitzu buruaren ustez, arlo horretan ikastolak kanpora begirako dinamizatzaileak beharko lituzke, eta kritika eginez, ikastolek orokorki, harremanak euskaraz izateko presiorik ez dutela egiten aipatu zuen, gerorako horrek ikasleentzat oztopoak sortzen dituela gaineratuaz. Horren aurrean, Edurne Erauskinek zioen, bolada batean barruan ere nahiko arazo izan ditu ikastolak, kanpora begira jartzeko, eta beharbada oraintxe da horretarako unea, *“beste guztiak ere busti beharko dira, eta inplikazioa zabaldu beharra dago”*.

Ikastolaren ingurukoa izan zen bilera hartan aipatu zen gairik garrantzitsuenak izan daitekeena: denbora gutxi barru aterako dira ikasketa guztiak euskaraz egin dituzten ikasleak karrera ere bukatuta eta horientzat oraindik ez dago irtenbide edo erantzun garbirik. *“Ulgorreko plan berezi horren azken helburua lana euskaraz egin ahal izatea da, eta laster jende prestatua aterako da”*. Josemari Velez de Mendizabalek esan zuenez, *“gazte horiek prestatu eta gogoz daude euskaraz lan egiteko, eta horretarako eskubidea dute gainera. Ikastoletatik irtendako jario sozial horri herri bezala erantzuteko gai ez bagara, ikastolaren lanaren ezeztapena etorriko da. Horren lehen erantzule, bere burua euskaldun nahi duen Udalak izan behar du, gu guztiok, beraz”*.

Egoeraren alde onen artean, azpimarratzekoa da Euskadin une hauetan inoiz baino euskaldun gehiago dagoela kopuru totaletan, eta erabilpena erabilpen, hogeitau urte barru denek jakingo omen dute euskaraz. Bestealde, Arrasateko kasuan, bitarteko onak ditugu, AED, Arrasate Press eta ATBren proiektuekin, beraz *“patente korsoa gure esku dugu, eta beste herri batzuetan esango dute: hori Arrasaten lor daiteke”*

Bukatzeko, azken erreflexio moduan, egungo egoerari buruz Julen Arejolaleibak bota zuen esaldia bildu nahi nuke orrialde hauetara: *“Zarata heterogeneoek iragartzeko dute sinfonia eta lotura handirik gabeko zertzeladek ematen diote hasera kua droari”*. Lotura handiegirik gabe, baina zerbaitetan hasiak gara, eta *“abiadurak baino gehiago kezkatu behar gaitu norabideak, abiadura handituko bait da gauzak biderkatzean”*.



# “S. Altuberen liburuak oraindik eredu dira”

**J. A. Arana Martija euslaltzaina, arrasatearrez kontu kontari**

*Jose Antoni Arana Martija, euskaltzaina, Arrasaten izan zen Jokin Zaitegiren omenez antolatu ziren ekintzetan parte hartzen. Euskaltzaindiako diruzaina, Arrasaten izan den euskaltzale eta idazleen bizitza eta lanaren jakitun dugu. Sebero Altuberen lagun handia, harro agertzen da euskaltzaindian berak utzitako postua betetzeaz.*

— Zein da Juan Carlos Gerraren lanaren garrantzia?

— Nik ez nuen Juan Carlos Gerra pertsonalki ezagutu. Hala ere haren bizitza eta lana oso ondo ezagutzen ditudala esan dezaket. Gerrari buruz oso gutxi idatzi da, baina ene ustez, Jokin Zaitegi eta Sebero Altube baino garrantzitsuagoa da, kontutan izan da arlo desberdinak jorratu zituztela. Munduan zehar bera dugu ezagunena.

Juan Carlos Gerra abokatu izan zen, baina heraldika, historia eta genealogia aztertzen aritu zen. Berak euskaraz idatzi zuen eta euskaltzaina izan zen bost hilabetez, izendatu eta gutxira hil egin zen eta. Azkue, Karmelo Etxebarria eta Serapio Mugikaren lagun handia, garai hartako euskaltzale eta euskal kulturaren inguruan zebiltzan guztiekin harremanak zituen.

— Hala ere, bere lana ez da oso ezaguna...

— Bai, berak lan ugari egin zuen eta publikatu ere, baina beharbada gerra ostean, 41ean hil zelako edo, hor geratu zen gizona apal-apal inork kasurik egin gabe. Euskaltzaindiak haren liburutegiaren katalogoarekin batera biografia luzea kale-ratuko du gertu. Katalogoaren hitzaurrea biografia izango da. Nire ustez, Arrasateko pertsonaiarik garrantzitsuenak da, nahiz eta Donostian jaioa izan. Arrasateko histo-

ria ikasteko Gerra ezinbesteko gizona da

— Juan Carlos Gerraren lana ezagutzeaz gain, Sebero Altubere ere ezagutzen duzu?

— Sebero Altube ondo ezagutu nuen. Izatez arrasatearra, 1901ean Gernikara joan zen Musika banda sortzera. 14-15 urtez musika lanetan aritu zen eta 1915ean arma-lantegian hasi zen lanean. Nahiko trebea zen armagintzan eta pistola bat ere patentatu zuen *Sivispa-cemparabellum* izeneko. 1922an euskaltzain oso izendatu zuten eta Errepublikara garaietan Gernikako alkatea izan zen. Exilioa ere ezagutu zuen. Bihotz bihotzeko euskaltzalea zen.

## “Gerra Arrasateko historia ezagutzeko behar beharrezkoa da”

— Sebero Altuberen liburuak...

— Sebero Altubek meritu handia izan du, dultzaineru izanez beste ikasketarik gabe, linguistikan murgildu zen eta linguistika teoria berriak jorratzen eta ikertzen hasi zen lehenetakoa dugu berau. Azkueren inguruan mundu oso itxia zegoen eta kanpoko linguistekin harremanik ez zegoen. Bera hasi zen arlo hori garatzen.

Nahiz eta ikasketarik ez izan, liburu ugari argitaratu zuen, oraindik ere gure



J. A. Arana Martija

artean eredu direnak.

Berak “*El acento del euskera*” liburuan hizkuntza ikasterakoan sintaxia eta gramatika ikasteaz gain, tonologia ere ikasi behar dela proposatzen zuen. Azentuari garrantzi handia ematen zion. Euskaltzaindia orain hasi da azentuari buruz zenbait ihardunaldi burutzen, baina ez da aurrerapen handirik egin. Bera izan zen Euskaltzaindian bide berriak jorratzen edo zabaltzen hasi

urtez, jesuitek Ameriketara bidali zuten eta. Guatemalan *Euzko Gogoa* aldizkaria kaleratu zuen eta itzulpengintzan hasi zen. Euskal Herrira itzuli zenean erdi galduta ibili zen inork ez bait zion jaramonik egiten. Hala ere, berak lanean segitu zuen. Emaizta ugari eman zion euskarari itzulpen bidetik, batez ere. Hil ondoren Euskaltzaindira pasa zen bere altxor guztia. Zaitegi gaixorik egon zenean erakunde hau izan zen laguntza eman zion erakunde bakarra.

— Baina hasiera batean Zaitegik Arrasateko herriari utzi nahi zion bere liburutegia?

— Bai, berak munduan zehar bueltaka ibili zuen liburutegia Arrasaten utzi nahi zuen, Arrasaten inoiz liburutegi edo kultur etxerik izatekotan. Edozein modutan, bere bizitzako azken urteetan gehien Euskaltzaindiak lagundu ziola ikusirik eta bertan liburuak ondo gordeta egongo zirela pentsatuz, Euskaltzaindiari utzi zion bere altxorra.

Liburutegi hau Baionan zegoen. Guk hartu eta sailkatu egin genuen. Hartu ez genuena hemen Monterronen ireki den liburutegian dago.



### AUKEA Sariak

Urtarrilaren 6an, Musakolako Kiroldegian eman ziren aurtengo Aukea sariak. Honez gero guztiok dakizuenez, talde mailan Arrasate Kirolak Rugby taldea, eta kirolari mailan Jose Antonio Gay eta Ignacio Maizbide izan ziren aukeratuak. Zorionak eurei!



Laso-Arregi

### Eskubaloian, lehen porrota

Neurketa garrantzitsua zuen Arrasate Kirolak Eskubaloi taldeak larunbatean, Gasteizko El Pilarren aurka. Garrantzitsua, bide batez Juan Mari Errasti orain arte kapitain izandako jokalaria omendu nahi zutelako. Gauzak ondo hasi, baina partidu amaieran 18-24 nagusitu ziren arabarrak. Juan Mariri eskainitako partiduan ligako lehen porrota heltzea ere!

### Mondrak partidu polita

Igande arratsaldean jokatu zen Mondra eta Elgoibarren arteko neurketa. Aranburuzabalak 40. minutuan eta Ikerrek 78.ean lortu zituzten arrasatearren golak. Elgoibar taldeak ere aukera polita izan zuen 78. minutuan, baina Txutxin atezainak ederto gelditu zuen Ibarluzeak jaurtitikoko penaltia. Bukaeran, beraz, 2-0 irabazi zuten gure jokalariek. Ondo.



**E D E L  
TAPIZTEGIA**

**Gortina  
Alfonbra  
Koltza**

Bidekruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25  
BERGARA

**LA UNION**

Garaje elektro-mekanikoa  
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe 2,  
Erakusketa: Sancho Abarca 6,

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



podiuma


**Pedro Urain,**  
zinegotzi txirrindularia

Pedro Urainek 50 urte ditu, Mendaron jaioa, eta bere zaletasunik handiena txirrindua omen da. "Lehenengo txirrindua hamasei urterekin erosi nuen, aitak emandako xoxak aurreratuz. Zaletasun handia genuen Mendaroko koadrilan. Aste-gunetan lan egin, eta fabrikatik irtezerakoan entrenatzen nuen, gero asteburuetan probak korritzeko".

Garai ezberdinak ziren haiek, 50eko hamarkada. "Asteburuetan bizikleta hartu, Legorreta, Durango, edo probaren bat zegoen edozein herritara hurbildu, bizikletaz noski, 125 kilometroko karrera egin, proba amaituz gero bost hogereko jaso eta buelta Mendarora bizikletan".

Orduko "printzipiante" mailan eman zituen lehen urratsak. Gero bigarren eta lehen mailako afizionatu ere bihurtu zitzaigun. "Txirrindulari bikainak zeuden garai hartan, Loroño, Jesus Aranzabal, Barrutia, Carlos Etxeberria, etab. luzea. Ni ere ez nintzen makala, baina ezin izan nuen profesionaletara jauzia egin, soldaduzka ere parean tokatu bait zitzaidan. Beti ere koxka hori gelditu zait barruan, saltua egin izan banu...".

Anekdotaz jositako urteak, eta Pedrok maitasunez oroitzen ditu oraindik ere. "Txirrindua barrubarruan sartua dudana 'harra' da, eta hainbeste txorakeria egiten genituen orduan...Hondarribira hurbildu bizikletaz baina berandu heldu, karrera hasia zegoenean; zer-



bait egin behar, eta Mendaroko lagunaren artean gure arteko lehia asmatu genuen etxera bueltan, karreraren bertan baino lehia gogorragoa gainera, badakizu, lagunaren arteko 'pikea'. Beste behin, Elgoibarren ziklo-krossa antolatu zuten, eta bertara joateko eskatu ziguten. Gu ziklo-krossean inoiz aritu gabeak. Hara non emozionatzen naizen, txistu bizian irten eta aldapa lehenengo postuan igo nuen. Denak harrututa. Hori lehenengo itzulian, gero mundu guztiak pasatu ninduen".

Eta zer esan zaletuei buruz... "Gogoratzen dut behin Fausto Coppi etorri zela Eibarren korritzera, eta aho zabalik gelditu zen hango giroa ikustean, berak ez zuela inoiz halakorik ezagutu. Eta galdetu Marinori ere, harro kontatzen du berak, Tourmaleta igotzean negar malkoak ateratzen zitzaizkiola, pozaren pozez, hango euskaldun eta ikurriña mordoa ikustean".

Noski, Pedro, euskaldunontzat txirrindua berne-barnetik sortzen zaigun 'harra' bihurtu zaigu eta.

■ **Rugbyan galdu**

Irunera joan, eta 16-3 galdu zuen Arrasate Kirolak Rugby taldeak. Pena, azken boladan partidu onak egiten ari bait ziren.

■ **Gazteak ederto**

Denboraldi bikaina burutzen ari da ohorezko mailako gazte taldea. Pasa den asteburuan ere, 0-3 nagusitu ziren Zarautzen, Molinerok lortutako hiru golei esker.


■ **Saskian ezin**

Ligako hamabigarren porrota ezagutu zuten Arrasate Kirolak saskibaloiko jokalariek, Patronato taldearen aurka. Oraingoan luzapenera heldu ziren, baina amaieran 87-75 galdu. Denboraldi eskaxaren ondorioz, mailari eusteko gogor aritu beharko dira A-2an.



**Trialsina Oñatin**

Datorren igandean, urtarrilak 21 "Oñatiko III. Trialsin indoor"-a jokatuko da, goizeko 10,30etan, Oñatiko Kiroldegian. Antolatzaileak Udal Gazte Batzordea, eta Txantxiku Pedalada Elkarte.



OKENDO  
KIROLAK

Iritsi da OKENDO KIROLAKera udazken-neguko moda!

Maalako errabala 13, Tfnoa: 79 92 76 ARRASATE

# Paris-Dakar dela eta. Brrrrrouummmmm!!!!

Lurrean jolasean zebilen mutikoaren aurpegi beltzean ilargi betearen antzeko bi begi zuri eta borobilak piztu ziren. Eta lehen momentuko harridurak beta eman bezain agudo txabolaren atera salto egin zuen, zarata sineskaitz hura zerk sortua ote zen jakin nahian. Baina ilunabarreko argi gorriskien artean galtzera zihoan hareazko zurrumbiloa besterik ez zuen ikusi ahal izan. Txabola barrura itzultzean, afaria prestatzen ari zen amaren begietan ikara somatu zuen. Eta Salif bera ere ikaratu egin zen.

Berehala iritsi zen aita. Tahouako merkatura joana zen egunsentiarekin, amak ehunduriko atorren truke ahuntz bat eta irina lortuko zituen esperantzan. Egun ososan urduri eduki zuen ahuntzarekin

akordatu ere egin gabe, aitaren besoetara salto egin eta entzun berri zuen zarataz galdegin zion Salifek.

*"Merkatuan entzun dut urrutiko lurraldeetan bizi diren gizon zuriak dabilzala inguruotan. Dirudienez, gau hotzen sasoiaren iristen denean burdinezko gurdi moduko batzuen gainean jarri eta gure basamortua igarotzen dute. Inork ez zekien Tahouan ibilaldi horren helburua, ez bait dute ehizean egiten. Eta ez dirudi, ezta ere, bizitzeko lur berrien bila doazenik, aldiro lehengo lekutik bait datoz. Nolanahi ere, gizon zurien gurdiak tximista baino azkarragoak omen dira eta norbaitek entzuna zuen behin gurea bezalako herriskatik pasatzean mutiko bat zapaldu eta bertan hilik utzi zutela. Kontuz, beraz, Salif, ez*

*kanpora irten".*

Gau hartan ez zuen mutikoak lo handirik egin. Zaratak entzuten jarraitu zuen tarteka, eta ezin bereiztu ia berriak ziren edo ilunabarrekoaren oihartzuna. Isilaldietan, berriz, aita aitapatutako tximista baino azkarragoak ziren gurdi haiek imajinatzeari ekiten zion. Nolakoak ote ziren? Nolako lurraldeak ote zeuden basamortua amaitzen zeneko mendiaren ostean?

Hurrengo egun osoa ateondoan eman zuen arren, ez zen ezer gertatu. Hala ere, Salifen begi zuriak ez ziren bezperako hareazko zurrumbiloa galdu zeneko puntutik mugitu. Eta, bapatean, beldur zehazgabeak eragindako dardara pausatu zen amaren ezpainertzean.


Mikel Intxausti

BEHERAPENAK

# MIANGO

*lotsagabe jazteko*

Postas 5, Tfnoa: 23 04 48 GASTEIZ



OHALAK

Errekabarren 20, Tfnoa: 79 80 90  
ARETXABALETA

# BASABE JATETXEA

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

ARETXABALETA

# Lua

gozokiak

Erdiko kale 8,  
Tfnoa: 79 66 75 ARRASATE

# PUB HAIZEA



# ARRASATE PRESS

79 71 64

# Gamei, S.A.

**MARRUSKADURAZKO PRENTSAK**  
**PRENTSA ESZENTRIKOAK**  
**PRENTSA HIDRAULIKOAK**  
**TORLOJODUN ERAUNSPENEZKO**  
**PRENTSA**  
**TOTXOTARAKO ZIZALAK**  
**DEFORMAZIO MAKINA BEREZIAK**

Nafarroa Etorbidea, 31 Tfnoa 79 55 00 Telefax 79 03 97  
**ARRASATE**


# EPELDE

argazki denda

Iturriotz 24



## IBARRA Garajea S.A.



**EBRO**  
**NISSAN**

Garajea  
 Automobil-konponketa  
 Garabi zerbitzua

# Gorka

**ILEAPAINDEGI**  
**MIXTOA**



Bainetxe kalea 10, behea. Tfnoa: 79 96 80 eta 79 63 27  
**ARETXABALETA**

# baldana

Medikuntza orokorra  
 Txertaketak  
 Kirurgia  
 Laborategia  
 X izpiak  
 Odontologia  
 Ile apaindegia  
 Urgentzia 76 27 97

Koldo Elelalde 28, etxebehea.  
 Tfnoa: 76 27 97 **BERGARA**

# VICTOR RUIZ MELGAR

Margolaria

Erdiko kale 32, 4.

79 12 63 (9etatik 1etara eta 4etatik 8etara)  
**ARRASATE**

# Iosu

argazki denda

Argazkilaritzarako  
 materiala.

Erreportaiak.

Ikastaroak

Olarate kalea 11, Tfnoa: 79 82 60

# ARRASATE

# PRESS

79 71 64

## Jolasa eta jostailuak

Gabonetan, gure hurrek hainbat jostailu jaso dute, eta hori gauza naturalizat hartzen dugu: helduok haurra zoriontsu izan dadin nahi dugu eta jostailuak eskaintzen dizkiogu.

Jolasa eta jostailua guztiz erlazioaturik daude, jostailua jolasaren lagungarri edo baliabide bait da. Jolasa gauza oso pertsonala da: imajinazioaren, sinboloaren bitartez sortzen den "espazioa". Haur, gazte edo heldua kontzentratzen, zentratzen, norbera izaten den "espazio" pertsonala da. Edozein kontzentrazio esperientziak sortzeko, komunikatzeko, ezagutzeko, garatzeko, ahalmen handiak ematen dizkiogu.

Jolasa, espazio "majiko" hori, bizi-espazio pribilegiatua da.

Pertsona bakoitzak jolas-mota eta momentu oso desberdinak bizi izaten ditu faktore desberdinengatik

(adina, erritmo pertsonala, etapak...). Batzuetan, haurrak berak bakarrik egin behar du jolas, beste batzuetan lagunekin, eta bestetan gertu dauden helduekin (guraso...). Jolas sinbolikoa egingo du, edo arauetakoa, edo... Batzuetan jolasa "fortzatua" egingo zaio gustora ez dagoelako (gorputzaren mugak direla, erlazioak direla...). Momentu bakoitzean haurrak bere jolasa, berea, bilatu beharko du..., eta hau aurkitzea oso garrantzizkoa da. Jostailuak esperientzia honetan toki handia dauka, jolasa aberasteko, laguntzeko edo sortzeko bait da.

Ez dugu momentu honetan jostailuen sailkapenik egingo, baina jostailuek sortzen dituzten egoerak edo hartzen duten hainbat funtzio ezberdin aipatuko ditugu:

— Jolasa probokatzen edo sortzen laguntzen duten jostailuak

(egoera aproposa ematen bada).

— Lagungarri edo jolasaren erronkurtsoak diren jostailuak,

— laguntzen ez duten jostailuak (egoera konkretuetan): haurra aspertu egiten da, etab.

Guri inporta zaiguna zera da: haurra eta haurraren jolasa. Nahiz eta haurrak jostailu asko edukiz agian beste tresna arruntago batzuk aukeratuko ditu edo heldu aukeratuko duen partaide edo "jostailu" moduan.

"tresnen" beharra du askatasunaren beharra du helduen beharra du.

Eta helduok hobeto ezagutzeko komunikazio aberatsa sortzeko, et agian geure bihotza irekitzeko.

Jolasaren beharra dugu!

*Ktarion taldea*

**K**abia


*Altzariak*

Gipuzkoako Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

**Felipe  
Arrizabalaga**

aroztegia

Legarre pabilola Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE



**ZENBAKI**

**Kontabilitatea  
Fiskalitatea  
Lana  
Zuzenbidea  
Juridikoa  
Finantzaketa  
Aseguruak**

Basabe industrialea  
ARETXABALETA

Tfnoa: 79 88 75  
79 75 99

**BAKAILO ETXEA**

Makailoa eta beroni buruzko produktuak  
Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu

Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE

**ARRASATE  
PRESS**

**79 71 64**

## Gabon osteko kaloriak

Amaitu dira jaiak. Agian, lehen baino kilo batzuk gehiago izango ditugu ganean, baina konpentsatzeko edo, ia seguru gure poltsikoa arinago egongo dela.

Egunerokotasunera itzultzeko garaia heldu zaigu, eta bide batez, jaten duguna kontutan hartzeko garaia ere bai. Horrela eginez gero, ez bait da zailegia izango gure moko finak eta mahai onak erantsitako kilo gehiagarri horiek kentzea.

Jaten dugun guztiak ez ditu kaloriak ematen, edo ez neurri berean behintzat. Ikus ditzagun elikagaiak: karbono-hidratoak, proteinak, koipeak, ura, gatz mineralak, bitaminak, mineralak. Eta hauetatik, lehenengo hirurak dira kalori iturri direnak (azukreak, proteinak eta koipeak).

Gramo bat azukrek 4, 5 kaloria

ematen ditu; gramo bat proteinak ere 4,5 kaloria eta koipeak berriz 9 kaloria gramo bakoitzeko. Gainerakoek —urak, landare-zuntz edo fribrak, bitaminek, mineralek— ez dute kaloriarik ematen; beraz, ez dute loditzen.

Ikus dezakegunez, guztien artean koipea dugu kalorietan aberatsena, eta horregatik komeni zaigu lehenengo murriztea. Koipe gehiegi hartzen dugu eta ez litzaiguke gaizki etorriko bolada batean beronen kontsumoa gutxitzea.

Janari guztiek ez dute koipe-kantitate berdina. Hemen doakizue zerrenda bat, janari bakoitzak 100 gramoko duen koipe-portzentaia ikusteko:

Landare-koipeak ..... %99,9

Animali koipeak ..... %91

Maionesak .....	%90
Gurinak .....	%84
Margarinak .....	%84
Hurrek, intxaurrek .....	%60
Txerrikiak .....	%57
Pistatxo, almendrak .....	%50
Hestekiak .....	%35-50
Esne osoak .....	%40
Arraultz gorringoak .....	%33
Kakaoak .....	%30
Esne freskoak .....	%30
Ardikiak, idikiak .....	%20
Olibak .....	%18
Aguakateak .....	%18
Pastelek .....	%10-20
Arraultzesneak .....	%10-20
Txahalkiak .....	%10
Oilaskoak .....	%10
Gailetak .....	%10

*Eukeni Olabarrieta*

*Arantxa Lizaso*



# Construcciones ARRASATE S. L.

(Lehen Construcciones CODIMA )

Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46

ARRASATE

## Tellamendira bizikletan

Igande goizean udazkeneko goiz argitsuan Udala plaza da gure zita-tokia. Bizikletak prest ditugu, koipe apur bat emun, erruberak ondo puztu eta Udalan gora abiatu gara.

Hasieran gogorra egiten zaigu, baina berotu ahala eta berriketan, aurki Udalan. Elizondotik eskumako bidea hartu Besaide aldera eta geroxeago behetik joan beharrean, goitik hartu dugu. Gora eta behera eginez txabola bat dagoen tokira heldu gara. Geroxeago Udalaitzetik datorren bidea ikusi eta bidetxidoretatik pifñadi bat zeharkatu dugu, beherantz.

Besaide albora (ezkerretara) utziz, Gesalibarretik datorren pistan izan arte, berriro gora egitea tokatu zaigu: txabola igaro eta unerik politena, Tellamendi osteko pagadi zoragarria, orberlez josita eta zu-




Tellamendi eta Udalaitz laino guztien gainetik

haitzak bilutsik, laiotsa edo "ainu-bea" eguzkiak gutxitan laztantzen duen tokia. Bide hori laga eta Ipisteko Arriagara iritsi gara gero ezkerrekaldera hartu eta oso argi agertzen zaigun bidea jarraituz, Tellamendi gailurrera iritsi gara. Begienbistan dugu Aramaio bailara osoa; aho zabalik utzi gaitu: auzoetako

baserriak, Orixol mendiluze ederra, Ipiste, Lezeaga, Anboto, Udelatx (atzean), Murugain ezkerkaldera, zoragarri benetan.

Hurrengo urtean ere joateko asmoa agertu dugu, udazkeneko orbel arteko bideei bisita egiteko.


K. U.



*Salterain*

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura daukazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.  
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 99 58



P. C. V.zko LEIHOGINTZA

20.500 ARRASATE





# FLAMINIO

## KOMEDIA

## MUSIKALA

### *Tanttaka taldea*



Urtarrilak 20, larunbata

Gaueko 10,30etan

Amaia antzokian

Sarrera 500 pta.

Arrasateko Udala / Gipuzkoako Foru Aldundia

## MUSAKOLA OSTATUA

**Taberna  
Jatetxea  
Bazkariak  
Bodak  
Banketeak  
Gelak**


Gipuzkoako Etorbidea z/g  
Tfnoa: 79 20 50



**BELUN  
taberna**

Lagunarte bikaina

Garagarza auzoa z/g Tfnoa: 79 61 14



**PEÑACOBATA  
Auto-Eskola**

Karugalde, 46  
79 14 01

**ARRASATE**

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

## A. ZANGITU

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA

## ARRASATE PRESS

79 71 64

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI  
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Zeharkale Estalla 1, 1. b -ARRASATE- Tfnoa:79 71 64

# Kaixo!!

## Dirulaguntzak

• Arrasateko gazte elkarteentzako dirulaguntzak. Iazko memoria eta 1990erako egitarau eta aurrekontua aurkezteko epea: urtarilaren 31a baino lehen. Gazte zerbitzuan.

## Bekak

• "Jose Letona" Bi beka:

A. Arrasateko geologi ezaguera.

B. Arrasate frantsesen okupazio garaian. Eskariak aurkezteko epea: urtarilaren 26a baino lehen, Kultur sailan.

• Ikasketak atzerrian egiteko beka:

• Filandia: 90-9 ikasturtean, 3. zikloko ikasketak egiteko. 18 hileko iraupena: Epea: martxoaren 1a baino lehen.

• Italia: postgraduatuentzat (historia, ekonomia, zuzenbidea, zientzia politikoak eta soziologia) ikerketa proiektuak egiteko. Epea: urtarilaren 31a baino lehen.

• Grezia: postgraduatuentzat ikerketa-ikasketak edo espezializazio-ikasketak. Epea: otsailaren 26a.

## Lehiaketak

• Arrasateko haratuztetarako Kartel-lehiaketa. Teknika librea. Saria: 50.000 pta. Lanak aurkezteko

*Kaixo!*

*Askotan guretzat, gazteontzat, interesgarri izan daitekeen informazioa lortzea zaila gertatzen zaigu.*

*Udaleko Gazte Zerbitzuak zailtasun hau gainditzera lagundu nahi zaituzte.*

*Hemendik aurrera, astero-astero, Arrasate Pressen zita izango dugu zurekin: Aste Gazten, hainbat pista eta kuriositateen berri emateko prest.*

*Zuekin kontaktzea beharrezkoa dugu: zuen eritzi, informazio beharrik, interesak, etab. ezagutaraztea eskatzen dizuegu, bai eta zuen gazte taldeen ekintzak ere.*

*Zure gustokoa eta baliagarria gertatuko zaizulakoan,  
Agur*

epea: urtarilaren 25a baino lehen.

• Bilboko Inauterietarako Kartel-lehiaketa. Lanak aurkezteko epea: urtarilaren 25a baino lehen.

• Derioko II Ipuin Lehiaketa. Euskaraz nahiz gaztelaniaz. Lanak aurkezteko epea: urtarilaren 27a baino lehen.

• UNEDeko I Ipuin Saria. Gai librea. Gehienez, 10 orrietako luzapena. Lanak aurkezteko epea: urtarilaren 31a baino lehen.

• "Medikuntza Saria" kirol edota medikuntzari buruzko lanak (Bartzelonako Caixak antolatuta).

Lanak aurkezteko epea: urtarilaren 31a baino lehen.

## Ihardunaldiak

• Turismo Gazte eta Eskolarraren Nazioarteko II Ihardunaldiak. Urtarilaren 24tik 28ra. Madrilan.

• Nazioarteko Asatronomiaren Gazteen Topaketa. Alemanian. Uztailaren 16tik abuztuaren 6ra. 16 eta 24 urte bitartekoentzat. Interesatuak mugitzen hasi zaitezke.

• Aragoneko Mugimendu Ekologistaren II Ihardunaldiak (Borjan). Otsailaren 3 eta 4ean.

*Aldi baterako lana/elkartrukeak*

• "Camp America" Nazioarteko Kanpamenduan monitore gisa lan egiteko deialdia. 18 urte baino gehiago eta ingeles hizkuntzaren ezaguera.

• Au Pair: Alemanian, Noruegan, Ingalaterran, Frantzia eta Estatu Batuetan.

## Bidaiak

• TIVE (Nazioarteko Turismoko Bulegoa eta Gazte Elkartrukeak) Negu-Udaberrirako gazte eta ikasleentzako bidaia eta zirkuitoak.

# Lore lurrindegia

Olarte kalea 10. Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE

# Zarraoa

lurrundegia, opariak jostailuak


## apaindegia

# SANIDES

Parasitoel aurre egiteko  
Insektu narraztiak akabatzeko,  
arratolak bame

URTEBETEKO GARANTIA

Erguin kalea 11, Bis. 3. ezk. Tfnoa: 79 22 81



Otalora 2, ARRASATE

**ETXEBIZITZAK**

- Haurrik gabeko bikote gazteak Arrasaten pisu alokatua behar du. Tfnoa: 79 30 20.
- Uribe auzoan pisua salgai ganbara eta garajeaz. Tfnoa: 79 49 66
- Muntatuta dagoen pisuan gela hartuko nuke. Jose Manuel. Tfnoa: 49 14 53 . Dei egin 8etatik 10etara.
- Errentan hartzeko etxeba edo merkatal lokal bila gauzak sartzeko. Tfnoa: 79 94 00
- Jantzitako pisuan logela bila. Tfnoa: 49.14.53 (Jose Manuel), gaueko 8etatik 10etara.
- Pisua salgai Urriburu kalean. Tfnoa: 79 81 79
- Pisua salgai Udalpe kalean. Tfnoa: 983-39 41 90
- Pisua salgai J.L. Iñarra kalean. Tfnoa: 79 20 03
- Pisu berri-berria Erguin kalean salgai. Gas naturala eta ur beroa, egongela, bi bainugela, sukalde ekipatua. Tfnoa: 79 19 96
- Neska behar da Donostian pisua konpartitzeko. Tfnoa: 76 43 74 (arratsaldeko ordubetan)
- Ikasleak Donostian pisua konpartitu nahiko luke. Tfnoa: 27 86 84. Asteguntan arratsaldez.
- Zigarrolan pisua erosiko nuke. Interesatuak deitu 79 62 89 tfnora.
- Neska behar da Bilbon pisua konpartitzeko. Tfnoa: 79 98 30
- Uribe auzoan aparkalekua alokatzen da. Dei 10etatik 11etara 79 69 59 tfnora.

**LANA**

- Neska edo emakumea behar dugu, etxeko lanak eta haurrak atenditzeko goizeko 9etatik 13etara eta arratsaldeko 4etatik 7etara. Informerekin. Tfnoa: 79 64 50
- Neska haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Deitu azkar 79 42 69 Tfnoa.
- Ingelesezko irakaslea behar da "Bilboko 3." kurtsoa neska bati emateko. Tfnoa: 79 57 53 (21etatik aurrera)
- Bi haur zaintzeko eta etxeko lanak egiteko pertsona behar da. Lan orduak:8-18. Tfnoa: 79 79 69 (8etatik aurrera)
- Haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume edo neska behar da. Tfnoa: 79 35 44 (7etatik aurrera)
- Euskara irakaslea behar da O.H.O.ko 6. mailako haurrari euskara klaseak emateko. Interesatuak deitu 79 37 87 tfnora. 7etatik aurrera.
- Asteburu gauetan haurrak zainduko nituzke. Ikaslea. Tfnoa: 79 99 82. 9etatik aurrera. Miren.
- Emakume euskalduna prest etxeko lanak egiteko edota urneak zaintzeko. Dei egin 79 07 73 Tfnoa.
- Emakume edo neska euskalduna behar da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Lan baldintza onak. Interesatuak dei dezala telefono honetara: 79 88 14, arratsaldeko 8etatik aurrera.
- Etxeko lanak eta haurrak zaintzeko neska euskalduna behar dugu. Tfnoa. 79.91.51. Deitu arratsaldeko 8etatik aurrera.
- Etxeko lanak egiteko eta haurra zaintzeko neska behar dugu. Tfnoa: 79 54 04

**SALEROSKETAK**

- Zure argazki-makinarentzako Panagor markako 200 mm-ko telea salgai. Diamentroa 62. Oso merkea. Tfnoa: 79 71 64
- Raider 2WD auto irrati-kontrolatua salgai, Challenger 250 irratiak . Baita bateriak eta beste, berri-berria. Tfnoa: 79 52 31 . Iban 8etatik aurrera.
- 5 urtetik 9 urtetako umeentzat bizikleta salgai BH markakoa, ia berria eta merkea. Tfnoa: 79 04 10 . 6etatik aurrera.
- 4/4 neurritako bibolina salgai. Interesatuak deitu 76 52 15 tfnora.
- Narruzko jaka salgai. Ona eta merkea. 55 tailakoa ia berria 79 89 51 Tfnoa.
- Ebro M-140 kamiola SS-Y salgai txarteka nazionalarekin. Interesatuak dei 81 01 61 Tfnoa.
- Saltzeko dauzkat Roland baxu amplifikadorea, Ovation baxua, Aquier baxua, Fender kitarra, Shure SM58 mikrofonoa eta foko bi mila watiokoa bakoitza. Deitu gaueko hamarretan. Ion 79 38 96
- Sonab markako amplifikadore-digitala salgai. Tfnoa. 79 29 09
- Akai markako pletina salgai. Tfnoa: 79 29 09
- Panagor markako zooma salgai, 55-225 mmkoa. Tfnoa: 79 29 09
- Bizikletak salgai. Akimoto GAC 15.000 pta. Luna GAC 20.000 pta. Berri berriak. Dei ezazue bulego orduetan (94) 658 20 12 Marian.
- Orbea "Deba" paseorako bizikleta. 5 pinioi 8etatik aurrera, 79 99 82

**ARRASATEKO HILAK**

- |   |   |
|---|---|
| Mancala Garmendia Iriarte<br>Urtarrilaren 2ean. 72 urte | Bixente Arriola Sologalztos.<br>Urtarrilaren 12an 64 urte |
| Pedro Zubillaga Jauregi<br>Urtarrilaren 5ean. 76 urte.  | M. Carmen Otxoa Plazaola<br>Urtarrilaren 12an 44 urte.    |
| Juncal Arbelaz Etxegarai<br>Urtarrilaren 7an. 83 urte.  | Modesto Zulueta Belastegi<br>Urtarrilaren 14an 94 urte.   |
| Maria Fernandez Montiel<br>Urtarrilaren 7an 76 urte.    | Domingo Iria Egluz<br>Urtarrilaren 16an 79 urte.          |
| Isigo Otero Uribarren<br>Urtarrilaren 9an 26 urte.      | Margarrita Garai Arregi<br>Urtarrilaren 16an 81 urte.     |
| Jose Iparragirre Alberdi<br>Urtarrilaren 11an 76 urte.  | Antonio Santos Matellan.<br>Urtarrilaren 16an 75 urte.    |
|   | Pablo Uribarren Altuna<br>Urtarrilaren 17an 72 urte.      |

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA: .....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Arrasate pasealekua 3 bis, etxeba.  
20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 64

## Famauen ahotik

**Simon Arregi: "Sasoi baten Zirolako zerrie inguruko inportantiena zuan"**



Simon, ospedida egunian, laneko lagunen

### Historixa apur bat

Hau lehen-lehen zuan errotie: Zigarrola Behekoa. Ta, gero zerrajeixa asuntue jarri juen: "Aspe y Cia". Hori 1880 inguruen ero... Handik hurrengo "La Cerrajera Guipuzcoana" izen zuan, Marques de Tola-na. Eta orduen, ba, Zerrajerakuek zittuan "Vergara-Jauregui, Resusta y Cia" eta lutzan ibiltten zittuan eta pentsau juen bat eittie eta hola sortu juen "Unión Cerrajera". Hori 1906 inguruen izengoz juen eta holaxe jarri zuan hau mar-txan. Ta gure aitte, Ofetikue-ta, han jabillan lanien eta handik hona ekarri juen eta hemen jarri juen enkargau, ta gero, ha jubilau za-nien, ba neu.

### Makifnak uren inderraz

Bai, Ofetiko makifnak ekarri jittuen hona, lau-bosten bat. Eta hasixeran lehengo errotako turbi-fiaz ibiltten zittuan, korrea haundi batzukin. Geruau jarri zittuan arginderraz bafie hasixeran uren inderraz. Eta makifnok, pa, orduen modernuek izengo zittuan bafie, neu jubilau arte ibiliko zittuan-da, azkenerako atzeratute... Bestela,

### PATXI "LISTERO"

Hemengo errotie kendu auienien, ja-bik } Patxi, "listero" enpliau juen . Oifn fabriketan fitxau eitten dan moruen , orduen listie pasetan zuan . Horreaittik deiketan gutzan Patxi Listero. 80 urtearte ero, ibiliko zuan , hil arte.

hau, lehen, hemen inguruko zerraik inportantiena izen zuan.

### Tornilluentzako barrikagifien

Zerrajeriek Renfentzako trenbi-deko tomilluek eitten jittuan eta gu hareik erueteko barrikagifien ibil-tten gitzuau. Hasixeran dana pago-egurrez eitten zuan. Gure aitte-ta pago-bille zoratute, ta pagoik egon ez... Gero, denporiaz, pifnu-ipurdixaz intentau bihe gauela, ta hareaz be ibili gitzuau bafie baserritarrak pe ipurdixe bakarrik saldute kontuik ez eta aber barrikak izen bihe-rrien kajak izen jeikien. Halaxe, hasi gitzuau kajak eitten eta hola, ba, pifnu osue aprobe txau jeikian.

### Lan gogorra

Fabrikak, honei, zerra kontuoi-tte, etxutziek inportantziaik emoten eta kondizifio txarretan eitten gai-xuan guk bihera: dana eskuz, dana bixkerka... Makifna barri batzuk ekarri jittuen bafie bihe zan moduen sekule etxuan jarri Zerrajeriek. Akaberan be, ni jubilau nitzenien, jarraitu biher auela-ta beste bati erakusten ibili nitzuan bafie goxetik gabera itxi juen da akabo.

Estepan Plazaola eta J. M. Garai

## Zelebrequerixak

- Ze moduz ba?
- Ondo.
- Entzun juat astien aitta hil jatzuela ero.
- Bai, halaxe dok bai.
- Bere burua bota ebalero...
- Bai. Ganbarako bentanatik piku arbolara salto egin juan, pikua bete betian zeuala. Harek egin juan pikugintzia!

■ ■ ■ ■ ■ ■ ■

Gizon batek ikusten dau mutiko bat etxe aurrian eta esaten dotsa:

— Hi mutikua, joan estankora eta ekarri dak Ducados pakete bat. Aguro etorri gero, e!

Bai esanaz badoia mutikua borondateik onenakin, baiña estankora bittartian elizpia egon eta hemen lagun bat pelotan. Sartu da hiru ero lau pelota joteko asmuakin, baiña bape uste barik berotu, erreka-ahaztu eta hamabira partidua. Hamama egin eta sei berri. Launa berriro, eta lau berri. Hola orduerdi baiño gehixao.

Halako baten akordatzen jako ahaztutakua; badoia estankura amasestu baten eta zigarruak hartuta badator aintxintxika.

— Mutil, kosta jak etortzia! Aguro etortzeko eztostat esan ba?

— Etorri aguro etorri naiz...  
—Kontestau zotsan mutilak larri eta estu-. Joan egin naiz soseguz samar

Juan Martin Elexpuru



**EGIDO** Ordezko Piezak

Automobilerako ordezko piezak

Legarre Pabilola. Tfnoa: 79 62 11



**KILI-KOLO**

Ferrerias 21  
Tfnoa. 797006  
ARRASATE



**S**an Agustin eguna zen, Zarugalde kaleko patrioiarena, 1953ko abuztuaren 28an. Eguna hobeto ospatzeko zarugaldegarrek ugarixo harrapaketa antolatu zuten. Harrapatzaileak asko ez izan arren, jende mordoia hurbildu zen bertara. Bertara diogunean, oraingo Muxibar ondoko biribilgu edo rotondara esan gura dugu. Izan ere, aurrean duzuen erreka Aramaio izenekoa da. Argazkian ikusten

den tarte osoa hamahiru bat urte estali zela, baita eskuin aldean, atzean, antzematen den presa ere. Presa horren azpian ezkailuak, aingirak, zarboak, amuarrainak, eta karramarroak harrapa zitezkeen. Hodeia zetorreanean batek baino gehiagok butroia jartzen omen zuen aingirak harrapatzeko. Ur handiekin Muxibarreko Esteban Etxabek ere ezkailutan irteten zuen. Lagunilla tabernako "Baratillo" k kainaberaz harrapatzen zituen ugarixoak. Teilatuaz estalita, Zarugaldeko

ikuztokia. Garai batean inguruko emakume guztiak bertara joaten ziren arropa garbiketa egitera. Baziren inoren arropak garbitzetik bizi ziren profesionalak. Udala auzoko zenbaitzuk Muxibarren amaitzeko lagatako partidari segida eman zioten behin baino gehiagotan ikuztokian zegoen porlanezko plataforman, harik eta eguzkiak zerusapaia urratu arte •


# EDERRA

Iturriotz kalea 12, Tfnoa: 79 96 25

## TITARE

LENTZERIA FINA

Olarte kalea 8,  
ARRASATE



**EZKER ESKUIN:** 1.- Hala ere. Bihoztuna, adoretsua. 2.- Ortu. Uhinaren bitartez. 3.- Kanpokoak. Roentgen. Zero. Lehenengo bokala. 4.- Leku galdetzailea. Untziak finkatzeko tresnak. Kontsonante bikoitza. 5.- Eskaini eta ez eman. Izanen naiz. 6.- Bokala. Karga. Nominatibo pluralaren marka. Animalia karraskari txikia. 7.- Iragazi. Txori mota. Berkelioa. 8.- Egile atzizkia. Kontuz! Leku hezeetako landarea. Bizkaieraz, omen. 9.- Bokala. Zeinu ortografikoa. Berrogeita bederatzi. Ohitura adierazteko. Azkenekoa. 10.- Atzizkia. Xalbador bertsolariaren deitura. Usnatu.

**GOITIK BEHERA:** 1.- Ateratako aurreak. 2.- Iparraldean, tranpa. Musika nota. Iodoaren sinbolo kimikoa. 3.- Zenbait landareren ziri zorrotza. Potasioa. 4.- Erronkarieraz, haize bolada. Joan den urtekoa. 5.- Sarrera. Floridako hiriburua. 6.- Ertza. Sartu aditzaren infinitiboa. 7.- Argiketan erabilitako gasa. Galegoz, ni. Bigarren bokala. 8.- Bokala. Behar bada. Bat. 9.- Garbigailu. 10.- Brigate Rosse. Jainko ejiptiarra. Odolean, positibo edo negatiboa izan daiteke. Sufrea. 11.- Irrati emanaldia. 12.- Haur hizkeran, muxu. Suari dariona. Haurrentzako janari. 13.- Arnas gabeziak hil. Komitet Gosudarstvennoe Bezopasnosti. Indioaren sinbolo kimikoa. 14.- Berrogeita hamaika. Bizkaieraz, luke. Bostehun. 15.- Larru. Bokala. Ikara.

*ENBIDOtik hartua, ELKAR-en baimenarekin*

**ITURRIOTZ TABERNA**

**GIRORIK**

**JATORRENA !!**

**Tfnoa:79 16 04**



**BERANGO**

*Aroztegia orokorra  
sukaldeko altzariak*

*kanpo eta barruko atearak*

*Legarreko pabiloi industrialak  
(behea) Tfnoa:79 01 92*

**ARRASATE**

## Maisua eta morroia

— Maisu, zer dela eta sortu genuen "hitz" hitza?

— Entzun ezak ongi, hitza nik dakidalarik betidanik egon duk gure artean, mina edo plazerra bezalaxe. Ez ezak pentsa, bada, inork asmatu zuenik, asmatu beharrik ez baitugu inoiz izan.

— Mina aipatu duzu: hitzak baino min haundiagorik sor dezakeenik ba al da?

— Jakina! ekartzak harri haundi bat eta jarri burua mahai horren gainean. Buruaren erdian joko haut: lehendabizikoa garrasia izanen duk, eta, bizirik irtenez gero, hitzak irtengo zaizkik. Ez diat uste, bada, maitasunezkoak izango direnik.

— Orduan, ene maisu, hitzak ez du ezertarako balio edo balio gutxikoa al da?

— Oker hago. Hitzen bidez besteak konbentzi ditzakegu; etsaiak zein kideak. Hitzak balio baitu nahi duguna ez adierazteko edota nahi ez duguna adierazteko. Ez da gutxi gero.

— Alajainetan! ikasteko asmotan zugana jo izan dut behin baino gehiagotan, baina oraingoan nahaste berraste itzelean laga nauzu.

— Hitzak ulertzen saiatu haizelako ez al da izango? Berrero ere engainatu haut. Ez ezak pentsa baina, nahietan egin dudarik. Hitzen bidez adierazi nahi izan diat egia eta gezurra aldakorrak izan daitezkeela, egurakdia bezala, urtaroak bezala, edo suertea bezalaxe.

— Harrigarria benetan, oi ene maisu! gaurdanik aurrera ez naiz inoiz hitzetaz fidatuko. Ziur zaude!

— Berrero ere bide okerretik hindoan. Egin egin ezak bainan ez ezak hitzegin.

Egin ahal duena ez baita hitz luzeetan galtzen.

Hala izan bedi!

Juan Luis Lopez Castro



Zurgin Kantol, 2

Tfnoa: 79 20 04

ARRASATE

**ARRASATE**  
**PRESS**

79 71 64

■ **Denboraz kanpoko musika irratsaioak:** Euskadi Irratiak emititzen dituen hogeitalau orduetan zehar, musika irratsaio desberdinak eskaintzen dizkigu. Hauetako gehienek maila polita erdietsi dute, klasikotik hasi eta rock-eraino.

Hala ere, formula irratiek (*Los 40 principales* eta halakoek) egiten dituzten saioekin parekatuz gero, Euskadi Irratikoak hotz eta urrunagoak egiten zaizkit.

Hotzagoak, ze apenas dago eta entzulegoarekiko aipamenik. Ez digute ezer galdetzen, ez gaituzte zirikatzen, barre edo negar eragiten, hau da, programak zuzenean egiten direnean errazago egiten diren gauzak. Urrunagoak, ze inoiz *-Kostaldeko trenean ezik-* ez bait da eguraldiz eta orduaren, hau da, bizi gareneko momentuaren aipamenik egiten, zuzenean grabatzen denean erraz asko egin ahal dena.

Programa gehienak ondo daude, baina nabariegia da lataren usaina eta honi darion bizitasun eta hurbiltasun falta. Gora zuzenaren bizitasuna eta saltsa!

■ **Errege Magoek alkateari ikatzik ere ez:** Arrasateko Udalak umeentzako jolas-parkea (PIN) antolatu zuen Gabon garaian, baina hainbat umek, zerbait gehiago gura eta, Bilbokora egin zuen alde. Radio Euskadikoak handik emititzen ari ziren egun batez, lau ume mondragoetar han zirela eta, Mondragoeko alkateari deitu zioten telefonoz, umeak galderak egin ziezazkioten. Guzti hori programa antenan zegoela.

Alkateak erantzun baina umeak ausartu ez itaunik egiten. Azkenean irratikoek ea Errege Magoak zer moduz portatu ziren berarekin galdetu ziotenean, honek bera ez zela monarkikoa eta ez zirela etxetik pasatu. Goiz berean Gorordo, Cuerda eta Albistur jaunak ere egon ziren irratian. Haiek harreman hobeak zituzten Maiestate Gorenekin, antza.

Joxe Aranzabal




— gusto baduzu —

■ **Tristana:** Ostiralean, gaueko 9etan, Luis Buñuelek zuzendutako filmea. Antzesleak, Catherine Deneuve, Fernando Rey eta Franco Nero. Tristana, hogeitau urteko neska gaztea bere ama galdu eta gero Lope jaunaren esku gelditzen da. Hau, denbora pasa ala, geroz eta gehiago erakartzen du Tristana.

■ **Astelehen buruzuri:** Astelehenean, gaueko 22,35etan (eta errepi-kapena asteartean, eguerdiko 14,55etan). Amatiñok zuzendutako solasaldi saio honetan, bizitza eta gizarte arlo ezberdinetako informazioa eztabaidatzen da. Datorren astelehenean, gaur egun dantzan dagoen autodeterminazioari buruz ariuko dira gonbidatuak.

■ **Becket:** Asteazkenean, gaueko 9etan. R. Burton, P. O'Toole eta J. Guielgud, P. Glenvilleren zuzendaritzapean. Tomas Becket, artzaidiakonoa izendatua izan eta Enrique II erregearen lagun mina bilakatu ondoren, Canterburyko artzapezpiku izatera heltzen da. Erregearen uste-tan izendapen honekin Eliza menperaturik izango du, baina laster Becketek bere kargua koroaren aurka aritzeko erabiliko du..

**bideoak**



**Eskeleto baten bila**

David Attenborough-ren Bizia Lurrean serie ederraren bigarren atala.

Aspaldiko itsasoak beren menpe zituzten beste kreatura batzuk. Aurkezleak Europa, Marokko, Australia eta Kanadara joan zaigu oraingoan, fosilen bidez mundu arraro eta liluragarri honen berri emateko. Betan nahiz VHSn.

**OSTADAR IRRATIA**

(102 F.M)

**Ostirala**

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)

4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)


**Azteazkena**

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

**Osteguna**

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).





**H**alako egun batez, Eskoriatzako Irakasle Eskolara joan ziren ATBkoak, bertako ikusentzunezko laborategi ederra ikusi eta bide batez hango lagunak agurtzera. Adiskide berria egin zuten, ostera, *Piti*, Irakasle Eskolako maskota bideo didaktikoetan. Azkenerako, Piti eta Iban Aiesa lagun minak bihurtu.



**J**ende askoren laguntza behar izan dugu, eta beharko, Arrasate Telebista aurrera ateratzeko. Albiste saioa -Berriak- aurkezteko lau lagun etorri zaizkigu, duten onena eman asmoz. Aste honetan horietako

bat aurkeztuko dizuegu, *Begoña Garai*, S. Frantzisko Xabier ikastolako irakasle bedofiarra. Kamararen begi beltzak eragiten duen errespetoa gora behera, ederto asko egin zuen lana.



**O**spitale Zaharreko lokaien obrak amaitu bitartean, IMIkoek utzitako gela estu batean egon dira lanean ATBko neska-mutilak. Bertan egin da editaia, bertan bilerak eta bestelako kontuak. Jabier Ozaeta eta IMIko beste zenbait lagun maiztxo agertzen ziren gela hartan. Eskertzekoa benetan egindako mesede.

**ENARA**  
OSAGARRIAK

Maalako Errabala 21,  
20500 Arrasate  
Tfnoa: 79 62 32

"EDERTU" ileapaindegia



San Andres auzoan

79 04 28 Tfnoa Arrasate



**ARIES**  
Martxoaren 21etik  
Apirilaren 20ra

Ustekabeko berri pozgarria jasoko duzu. Zure ahaleginak ez dira alperrikakoak izan. Hala eta guztiz ere hasitako bidetik jo behar duzu, bestela beharbada ustea ustel aterako da.



**TAURUS**  
Apirilaren 21etik  
Maiatzaren 20ra

Erraz mintzen zara azkenaldi honetan, edozein arazo dela medio. Portaera horrek traba baino ez ditu egingo besteekiko harremanetan. Zabaldu zure bihotza benetan. Edanak ez du ezer konponzen.




**GEMINI**  
Maiatzaren 21etik  
Ekainaren 20ra

Zure lan egoera hainbestean doa; gauza serioa ez da, baina dituzun asmo horiek atzeratuta geldituko dira. Ikasi itxoiten, ez zara damutuko; bestalde, maite duzun horrek ez du ezeren errurik.



**CANCER**  
Ekainaren 22tik  
Uztailaren 22ra

Zure eztarria zaindu behar duzu. Erretzen baduzu edo erretzaileren ondoan bazaude, txarto ibiliko zara gero. Egunero ikusi bai baina agurtzen ez duzun horrek egitan hartu zaitu, kontuz!




**LEO**  
Uztailaren 23tik  
Abuztuaren 23ra

Zure familiako zaharrek ez dute horrelako traturik merezi. Maite duzun horrek arazoak ditu bere ikasketetan. Laguntzen ez badiozu, beste batengana joko du.



**VIRGO**  
Abuztuaren 24etik  
Irailaren 23ra

Zeure lanari gustua hartzen hasi zara, bapoi! Nagusiak ere konturatu dira horretaz. Laster izango duzu merezi duzun ordaina. Ez bizi lanerako bakarrik, maitasunak ere badu bere garrantzia pertsonaren orekan.



**LIBRA**  
Irailaren 24etik  
Urriaren 23ra

Arazo ekonomikoak badituzu ere, ez gehiegi larritu, dirua ez da dena mundu honetan eta. Ahaztuta daukazun lagun horri lagundu behar diozu, akaso sorpresaren bat emango dizu.



**SAGITARIUS**  
Azaroaren 23tik  
Abenduaren 21era

Hainbeste kezkatzen zaituzten horiek behin betirako uxatzeko, eskatu familiaren laguntza, ezezagunek ezer gutxi egingo dizute eta, arazo horretan. Hautzaroa gogora ekartzea zahartzen ari zaren seinale da askotan.




**CAPRICORN**  
Abenduaren 22tik  
Urtarrilaren 20ra

Azkenaldi honetan lasaia bazabiltza ere, ez dago dena konponduta; oraindik ere, hasitako bideari eutsi beharrean zaude. Noizpait barre egitea, gorpuzari ezezik izpirituari ere ondo etorriko zaio.



**AQUARIUS**  
Urtarrilaren 21etik  
Otsailaren 19ra

Zure lan egoera ez da hain txarra. Zeure buarekin oso gustora ez bazaude, behar bada besteak nola dabilzan ikustea komeni zaizu. Arrazoi barik kezkatzen zarela ikusiko duzu.



**PISCIS**  
Otsailaren 20tik  
Martxoaren 20ra

Zure mahaitik janari koipetsuak kentzen hasi behar duzu. Diru aldetik, laster ibiliko zara orain baino hobeto. Hala ere, horrek ez ditu zure nahigabeak erabat uxatuko.



**Arrasateko  
jattetxea**

Olarte kantoia 3,  
Tfnoa: 79 84 53



**URONDO elektrizitatea.**

Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- \* Elektrogaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak
- \* Proiektuak

**Arrasate**  
u  
t ● Klase  
o praktiko  
e eta  
s teorikoak  
k  
o  
l  
a  
Olarte 30,  
79 89 89

**CE**

ERRASTI KRISTALDEGIA


Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak

Olarte kalea 47, behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

**ARRASATE  
PRESS**

79 71 64

# Plan on bat baduzu gogoan kontutan izan Kutxa.



Zure neurriko Plana aurki dezazun, zein edo zeintzu diren zuri hobekien datozkizunak aukeratu besterik ez duzu.

Etorkizunean, gauzak zuk aurrikusi bezala gerta daitezen.

Zuk nahi duzun bezala.

## **PENTSIO-PLANA**

Errentagarria, zergarigarria eta zure neurrikoa. Etorkizuna duen dirua.


## **AURREZKI-PLAN ASEGURATUA**

Oso interesgarria eta zergarigarria. Seguru hazten den dirua.

## **AURREZKI-PLANA**

Interes handia aurrezki txikiarentzat. Piskanaka gehiagotzen den dirua da.

**AURREZKI-KUTXA**  
MUNIZIPAL A



**CAJA DE AHORROS**  
MUNICIPAL



Mondragoe elurretan. 1985

Roberto Mendi



**FAGOR** 

**iKER**

**SUKALDE  
LILURAGARRIAK**

**ARRASATE**

Bainugela-erakusketa: Zarugalde kalea 52, Tfnoa: 79 99 42  
Sukalde-erakusketa: Udala Plaza z/g, Tfnoa: 79 00 43